

**Fiskalizazio Txostena**

**Informe de Fiscalización**

**Euskal Autonomia Erkidegoko  
Zuzenbide Pribatuko Erakunde Publiko eta  
Sozietate Publikoen kontuak**

**Cuentas de los Entes Públicos de Derecho  
Privado y Sociedades Públicas de la  
Comunidad Autónoma de Euskadi**

**2012**





## **AURKIBIDEA/ÍNDICE**

<b>LABURDURAK.....</b>	<b>5</b>
<b>I. SARRERA.....</b>	<b>7</b>
<b>II. IRITZIA.....</b>	<b>9</b>
II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA.....	9
II.1.2 Langileria.....	9
II.1.3 Ondasun eta zerbitzuen kontratazioa.....	9
II.1.4 Babesletza kontratuak.....	10
II.2 KONTUEI BURUZKO IRITZIA.....	10
<b>III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK.....</b>	<b>12</b>
III.1 LANGILERIA.....	12
III.2 ONDASUN ETA ZERBITZUEN KONTRATAZIOA.....	12
III.2.1 Kontratazio espedienteak.....	12
III.3 BESTELAKO ALDERDIAK.....	14
III.3.1 Merkataritzako eragiketetan berandutza.....	14
III.3.2 Emandako diru-laguntzak.....	15
III.3.3 Hitzarmenak.....	15
<b>IV. AZTERTUTAKO SOZIETATE PUBLIKOEN URTEKO KONTUAK 2012-KO ABENDUAREN 31-N.....</b>	<b>17</b>
<b>ALEGAZIOAK.....</b>	<b>21</b>
<b>ABREVIATURAS.....</b>	<b>61</b>
<b>I. INTRODUCCIÓN.....</b>	<b>63</b>
<b>II. OPINIÓN.....</b>	<b>65</b>
II.1 OPINIÓN SOBRE EL CUMPLIMIENTO DE LA LEGALIDAD.....	65
II.1.2 Personal.....	65
II.1.3 Contratación de bienes y servicios.....	66
II.1.4 Contratos de patrocinio.....	66
II.2 OPINIÓN SOBRE LAS CUENTAS.....	67
<b>III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN.....</b>	<b>69</b>



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

III.1	PERSONAL .....	69
III.2	CONTRATACIÓN DE BIENES Y SERVICIOS .....	69
III.2.1	Expedientes de contratación .....	69
III.3	OTROS ASPECTOS .....	72
III.3.1	Morosidad en las operaciones comerciales .....	72
III.3.2	Subvenciones concedidas .....	72
III.3.3	Convenios .....	73

#### **IV. CUENTAS ANUALES DE SOCIEDADES PÚBLICAS ANALIZADAS A 31 DE DICIEMBRE DE 2012 ..... 74**

#### **ANEXOS ..... 78**

A.1	Legislación aplicable .....	78
A.2	Inmovilizado intangible e inmovilizaciones materiales.....	79
A.3	Inversiones inmobiliarias .....	79
A.4	Inversiones en empresas del grupo y asociadas a largo plazo .....	80
A.5	Inversiones financieras a largo plazo .....	82
A.6	Existencias .....	83
A.7	Fondos propios .....	85
A.8	Subvenciones, donaciones y legados recibidos.....	85
A.9	Provisiones a largo plazo.....	86
A.10	Deudas a corto plazo y acreedores comerciales.....	87
A.11	Endeudamiento .....	88
A.11.1	Endeudamiento y gastos financieros.....	89
A.11.2	Otros pasivos financieros no bancarios .....	89
A.12	Gastos de personal .....	90
A.13	Aprovisionamientos y otros gastos de explotación .....	91
A.14	Ingresos de explotación .....	92
A.15	Análisis de contratación .....	92
A.15.1	Expedientes adjudicados en 2012.....	92
A.15.2	Expedientes adjudicados en ejercicios anteriores.....	94
A.16	Adquisiciones tramitadas como compras menores .....	95
A.17	Análisis de contratos de patrocinios .....	97
A.18	Análisis de subvenciones concedidas.....	97
A.19	Convenio colaboración STC-ELS, SA y Metaposta, SA .....	98

#### **ALEGACIONES ..... 101**

Vitoria-Gasteiz, 2014ko maitzaren 29a  
Vitoria-Gasteiz, a 29 de mayo de 2014



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## LABURDURAK

EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa
UUKK	Urteko Kontuak
XG	Xedapen Gehigarria
XI	Xedapen Iragakorra
LDEAE	1/2011 Legegintza Dekretua, maiatzaren 24koa, Euskadiko Aurrekontu Araubideari buruz indarrean dauden lege xedapenen bateratutako testua onartzen duena.
ET-FV, SA	Eusko Trenbideak, SA
EEE	Energiaren Euskal Entea
EJ	Eusko Jaurlaritza
KBA	Kontratatorako barneko aginpideak
SPKL	30/2007 Legea, urriaren 30ekoa, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzkoa.
EAEHONAL	Euskal Autonomia Erkidegoko Herri-ogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko Legea
BOP	Baldintza Orokorren Plegua
GZTP, SA	Gipuzkoako Zientzia eta Teknologia Parkea, SA
TP, SA	Teknologia Parkea, SA
20/2012 LED	20/2012 Errege Dekretu Legea, uztailaren 13koa, aurrekontuaren egonkortasuna eta lehiakortasunaren sustapena bermatzeko neurriei buruzkoa
AHL	Arautze Harmonizatuari Lotua
SGECR, SA	Euskal Herriko Arrisku Kapitalaren Kudeaketa, SA
SPRILUR, SA	Industri Lurra Sustatu eta Kudeatzeko Sozietatea, SA
STC-ELS, SA	Eraldaketa Lehiakorrerako Sozietatea, SA (lehengo SPRI, SA)
SPKLTB	Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina
EAETB	Euskadiko Aurrekontu Araubideari buruz indarrean dauden lege xedapenen testu bategina.
HKEE	Herri-Kontuen Euskal Epaitegia
VIRESA	Euskadiko Etxebizitza eta Lurzorua, SA
BOE	Babes Ofizialeko Etxebizitzak
PTE	Prezio Tasatuko Etxebizitza
ES	Etxebizitza Soziala



## I. SARRERA

HKEEren urteko lan programak EAEren 2012ko ekitaldiko Zuzenbide Pribatuko Erakunde Publikoen eta Sozietate publikoen Kontuen fiskalizazioa barne hartzen du.

HKEEk otsailaren 5eko 1/1988 Legean eta Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osokoak onartutako Lanerako Planean ezarritakoari jarraiki, ELS, SA eta VISESA eta ET, SA sozietateen 2012ko ekitaldiko urteko kontuen fiskalizazioa mamitu du, EAEren zuzenbide pribatuko erakunde publikoen eta sozietate publikoen kontuen fiskalizazio esparruan barne hartzen direnak.

Azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 7. artikulua, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri-ogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onesten duenak, Euskadiko Ondareari buruzko azaroaren 17ko 5/2006 Legearen Seigarren Azken Xedapenak emandako erredakzioan EAEren sektore publikoaren gaineko definizioan honako hauek barne hartzen ditu: EAEren administrazio orokorra, erakundeen administrazioa (erakunde autonomo eta zuzenbide pribatuko erakunde publikoak), sozietate publikoak eta sektore publikoko fundazioak; baita legeak jasotako ezaugarriak betetzen dituzten partzuergoak.

Gauzatu beharreko lanak ez du Osakidetza eta Euskal Irrati Telebista (EiTB) zuzenbide pribatuko erakunde publikoen, ezta haien mendeko sozietateen fiskalizazioa barne hartzen, HKEEk horiek beste fiskalizazio txosten batean aztertu baititu. Erakunde hauek salbuetsita, zuzenbide pribatuko erakunde publiko eta sozietate publikoak, zeinetan EAEren Administrazio Orokorraren partaidetza-ehunekoa kapital sozialaren % 50etik gorakoa den, 2012ko abenduaren 31n, hurrenez hurren, 7 eta 37 dira, era honetara sailkatuak:

- ELS, SA taldea: 19 sozietate

2012an honako sozietate hauek desagertu dira: Deba Beheko Industrialdea, SA, Deba Goieneko Industrialdea, SA, Elorrioko Industrialdea, SA, Buruntzaldeko Industrialdea, SA, Irungo Industrialdea, SA, Mallabiko Industrialdea, SA, Oarsaldeko Industrialdea, SA, Okamikako Industrialdea, SA, Urolako Erdiko Industrialdea, SA, Urolako Garaiko Industrialdea, SA, Zarauzko Industrialdea, SA eta Zuatzu Enpresa Parkea, SA.

2012an Deba Bailarako Industrialdea, SA, Bidaso Oarsoko Industrialdea, SA, Bizkaia Sortaldeko Industrialdea, SA, Urolako Industrialdea, SA, eta Beterri Kostako Industrialdea, SA sozietateak sortu ziren.

- EEE Taldea: Energiaren Euskal Erakundea eta 6 sozietate.

2012an Araiako Central Hidroeléctrica San Pedro, SA desagertu eta Biscay Marine Energy Platform, SA sortu zen.

- Eusko- Trenbideak taldea: 2 sozietate

- Beste batzuk: Zuzenbide pribatuko 6 erakunde publiko, 10 sozietate eta 9 fundazio.

2012an Egailan, SA, Hazi Landa eta Itsas Ingurunearen Garapenerako Korporazioa, SA sozietateak desagertu ziren eta Lanbide Erakunde Autonomoaren kontuak ez dira Zuzenbide Pribatuko Erakunde Publiko modura aurkeztuko.



Ondotik zerrendatutako fundazioek ere EAEn Aurrekontu Orokorrak osatzen dituzte (LDEAEn 2. art.) eta HKEEk berariaz fiskalizatu beharreko Sektore Publikoaren atal dira (HKEEren 1/1988 Legearen 2. art., martxoaren 1eko 6/2012 Legeak emandako idazkerari jarraiki):

Euskal Herriko Goi mailako Musika Ikastegiaren Fundazio Pribatua-Musikene, Trenbidearen Euskal Museoa Fundazioa, Berrikuntza eta Ikerketa Sanitarioaren Euskal Fundazioa (BIO), Zahartzeari buruzko ikerketa zentro nazionala-CNIE, Hazi Fundazioa, Erika Fundazioa, 2012 Fundazioa, Euskal Herriko Gazte Orkestra eta Euskadi Kirola Fundazioa.

ELS, SA, VISESA eta ET, SA sozietateak hautatu dira; horiek guztiek batean kapital aurrekontuaren % 12 eta ustiaketa aurrekontuaren % 7 egiten dute Enpresa Sektore Publikoaren guztizko aurrekontuaren gainean.

% PARTAIDETZA		
SOZIJETATEA	EJ	XEDEA
<b>SOZIJETATE PUBLIKOAK:</b>		
1 ET-FV, SA .....	% 100	Tren garraio zerbitzuak, bai bidaiarienak, bai salgaienak, material ibilkaria mantentzea barne dela..
2. STC-ELS, SA.....	% 99,01	Industri sustapena, enpresa berrien sorrera eta enpresen arteko lankidetzeta bultzatzea. ....
3. VISESA .....	79,36%	Etxebizitzak sustatu eta zaharberritzea, babes ofizialekoak gehienbat.

Fiskalizazioak honako alderdi hauek besarkatzen ditu:

- Legezkoak: Honako atal hauetan: aurrekontua, zorpetzea eta finantza eragiketak, langileria, obren kontratazioa, erosketa eta zerbitzuak, diru-laguntzen emakida eta zuzenbide publikoko sarrerei buruzko arautegia.
- Kontularitzakoak: Urteko kontuak ezargarriak diren kontularitzako printzipioen arabera mamitu diren aztertuko dugu. EAEn Sektore Publikoa osatzen duten sozietate guztiek -fiskalizazio txosten honetan aztergai direnak- kanpoko enpresek egindako auditoria finantzario eta aurrekontua betetzeari eta legezketasunari buruzko txosten bat dute, HKEE honek lan hau egiteko aintzat izan dituenak.
- Lanaren zabalak ez du gastuaren eraginkortasun eta efizientziari buruzko azterlanik besarkatzen. Nolanahi ere, azaleratutako hutsak “Kudeaketaren alderdiak eta Gomendioak” idazpuruan xehetasunez jasoko ditugu.



## II. IRITZIA

### II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

#### II.1.2 LANGILERIA

1.- Ekainaren 29ko 2/2012 Legeak, 2012ko ekitaldirako Estatuko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituena, ekitaldi horretarako sektore publikoko langileen kontratazioak mugatzen ditu. Legeak 23. Xedapen Gehigarrian ezartzen du merkataritza sozietate publikoek ezingo dutela langile gehiago kontratatu, nola eta ez diren lehiaketak lehenagoko ekitaldietan abiarazi edota Legea indarrean sartu zenean programa edo urte anitzeko planen esparruan jada nahitaezko ez ziren.

ET, SAK 23. XG urratu du 70 langile modu mugagabeen kontratatzean.

2.- ET, SAK langile finko bat kontratatu zuen eta aldi baterako hiru kontratu gauzatu zituen inongo hautaketa prozesurik bideratu gabe; horrek, enplegu publikorako sarbidea arautzen duten berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak urratzen ditu.

Berebat, langile finko baten hautaketa egiteko berariaz gaitutako enpresa bat kontratatu zuen, deialdiari publikotasuna eman eta hautagaien azken zerrenda proposatu zuena. Sozietateak kontratatutako enpresari ez zion exijitu hautagaiak aukeratzekoan berdintasun-, meritu- eta gaitasun-baldintzak bete zirela egiaztatuko zuen agiririk aurkezteko, eta, ondorioz, ezin egiaztatu izan dugu printzipio horiek bete diren.

Gainera, langileak hautatzeko kanpoko enpresek proposatutako izangaiaren azken zerrenda ez zen puntuen arabera hurrenkeratu eta ez zen kontratatutako pertsonarekin izenpetu beharreko kontratu mota argitaratu.

Era berean, aldi baterako langile bat hautatzeko prozesuan kanpoko hautaketa enpresa bat kontratatu zen, Lanbidek proposatutako zazpi izangaiaren curriculumak balio-neurtu zitzan, ordea, enpresak aurkeztutako dokumentazioak ez du izangai horien hautaketan berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak bete direla egiaztatzen utzi. Gainera, ET, SAK kontratatu zuen izangaiaren gaitasun profila ez zen kanpoko hautaketa enpresaren iritzira lanpostuaren betekizunak betetzeko hoberena eta ez du egindako hautaketa justifikatu.

#### II.1.3 ONDASUN ETA ZERBITZUEN KONTRATAZIOA

##### ET-FV, SA

3.- Kontratu txiki modura izapidetu diren 744.320 euroren gastuak egin dira; ordea, Kontrataziorako Barne Aginpideen arabera zegokion prozedura bitartez izapidetu behar ziratekeen (Ikus A.16.1 Eranskina).

##### STC-ELS, SA

5.- 3.- Kontratu txiki modura izapidetu diren 316.210 euroren gastuak egin dira; ordea, Kontrataziorako Barne Aginpideen arabera zegokion prozedura bitartez izapidetu behar ziratekeen. (ikus A.16.2. eranskina).



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## VIIESA

6.- Aretan, Laudion, 69 BOE eta 34 ES, trastelekuak eta garajeak eta atxikitako urbanizazioa konpontzeko lanen egikaritza kontratuan, 344.000 euroan esleitu zena, pleguetan eskatutako kaudimenak lehia mugatzen zuen, sailkapen modura lehia zenbatekoaren arabera zegokioketena baino sailkapen handiagoa eskatzearekin (A6 akatsa, A.15.1 Eranskinean).

7.- Kontratu txiki modura izapidetu diren 117.472 euroren gastuak egin dira; ordea, Kontratatorako Barne Aginpideen arabera zegokion prozedura bitartez izapidetu behar ziratekeen (Ikus A.16.3 Eranskina).

### II.1.4 BABESLETZA KONTRATUAK

8.- ET, SA eta ELS, SA sozietateek hurrenez hurren, bat eta bost babesletza kontratu gauzatu zituzten, 45.000 euroren eta 750.000 euroren zenbatekoan, zuzenean esleituz, ez publikotasun, ez lehiarik bideratu gabe (A akatsa A.17 Eranskinean).

Epaitegi honen iritzira, EAEren Enpresa Sektore Publikoa osatzen duten fiskalizatutako erakunde eta sozietateek, aurreko idatz-zatietan aipatutako lege hausteak alde batera, 2012ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jarduera indarreko arautegiaren arabera gauzatu dute.

## II.2 KONTUEI BURUZKO IRITZIA

### ET-FV, SA

1.- Sozietateak urteko galerak izan ditu eta galera horiek, ezarritako finantzaketa baliabideen arabera, ustiaketari emandako diru-laguntza bidez estaltzen dira ekitaldiko galeren zenbatekoan, eta nagusiki, ibilgetuko amortizazioetarako zuzkidurak kenduta; horiek guztiak ekitaldiko galera-irabazien kontuan “Ustiaketako beste diru-sarrerara batzuk” modura erregistratzen dira. Ezargarria zaion finantza informazioko araudiari jarraiki eta Sozietatearen ondarean eraginik ez badu ere, ustiaketaren mentsak berdintzeko jasotako diru-laguntzak “galerak berdintzeko bazkideek egindako ekarpenak” kontuan erregistratu behar dira, balantzeko “Funts Propioak” idazpuruan. Honenbestez, abenduaren 31n Sozietateak erregistratu dituen galerak eta “Galerak berdintzeko bazkideen ekarpenak” kontuaren saldoak 34 milioi euroren balio txikiagoa dute.

2.- Sozietateak ez du pasiboaren zerga geroratu erregistratu, 57,4 milioi euro egin dituen, kapitaleko diru-laguntzak “Ondare garbia” idazpuruan kontabilizatzetik sortutakoa. Geroratutako zergak eragindako pasibo honek, erregistratu izan balitz,aldi berean zerga geroratuak eragindako kopuru bereko aktibo baten erregistroa eragingo zukeen, konpentsatzeko dauden oinarri zergagarri negatiboak daudelako, diru-laguntza horiei lotutako zerga geroratuak eragindako pasiboen epe berean eragin daitezkeenak. Honenbestez, nahiz ez duen balantzean ageri den Ondare garbiaren saldoan eraginik, 2012ko abenduaren 31n Ondare garbian jasotako “Kapital diru-laguntzak” kontuari balio handiegia



eman zaio eta “Pasiboko zerga geroratuak” kontuari, berriz, 57,4 milioi euro gutxiagokoa. Berebat, “Geroratutako zergek eragindako aktiboak” kontua kopuru horretan balio txikiagoa eman zaio eta horretatik 45,9 milioi euro aurreko ekitaldikoak dira eta honenbestez, Erretserbetan jaso behar lirateke; gainerakoa, 11,5 milioi euro, 2012ko ekitaldikoak dira eta ekitaldiaren emaitza negatiboa murriztu behar lukete.

Epaitegi honen iritzira, aurreko paragrafoetan jasotako salbuespenak alde batera, EA Eren Enpresa Sektore Publikoa osatzen duten fiskalizatutako sozietateen urteko kontuek alderdi esanguratsu guztietan erakutsi dute 2012ko ekitaldiko ekonomia jarduera eta ondarearen eta ekitaldi itxieran amaitutako finantza egoeraren irudi zehatza.

Auditoriako gure iritzian eraginik ez badu ere, ondotik adieraziko ditugun alderdiak azpimarratu nahi ditugu:

### **STC-ELS, SA**

Sozietateak eragiketa esanguratsuak egin ditu elkartutako erakundeekin, besteak beste, jarduera gauzatzeko beharrezko duen finantzaketa ekarpena. Alde horretatik esan behar da Sozietateak bere akziodun nagusiaren finantza-sostengua duela, hau da, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiarena, dituen finantza eta bestelako zeinahi konpromiso betetzeko dagozkion aurrekontuko kontu-sailak esleituta gauzatzen dena. Honenbestez, erantsitako urteko kontuen gainean egiten den zeinahi interpretazio edo analisi, ezaugarri hori aintzat hartuta egin behar da.



### **III.BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK**

Atal honetan ekonomia-finantza jarduera arautzen duten printzipioak gehiegi eragiten ez dituzten akatsak ez ezik, kudeaketa hobetzeko azpimarratu nahi diren prozedurazko alderdiak ere azaleratu dira.

#### **III.1 LANGILERIA**

- ET-FV, SA: 2009ko ekitaldiaz geroztik Sozietatea antolamendu-egitura berria ezartzen ari da eta horren ondorioz, 2012an 13 langileren barne promozio prozesua gauzatu da; ordea, izangaiak hautatzerakoan ez da behar hainbat bermatu berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak bete direnik.
- STC-ELS, SA 2012ko ekitaldian zehar, lan kontratu finkodun 11 langilek ordainsari aldakorrak jaso zituzten, Enpresa Zuzendaritzak unean-unean ezartzen zituen helburuen arabera kalkulaturakoak; horrek Sozietatearen lan baldintzak arautzen dituen Hitzarmen erregulatuzailea urratu du, izan ere ordainsari aldakorrak Sozietateko zuzendaritzakoentzako aurreikusten ditu.

#### **III.2 ONDASUN ETA ZERBITZUEN KONTRATAZIOA**

##### **III.2.1 KONTRATAZIO ESPEDIENTEAK**

Ekitaldian esleitutako kontratazio espedienteak aztertzetik eta lehenagoko ekitaldietan esleitutako espedienteak jarraitzetik, A.15 eranskinean aztertu ditugunak, honako alderdi hauek azpimarratu nahi ditugu:

##### **Kontrataziorako barneko aginpideak**

###### **ET-FV, SA**

Sozietatearen kontratazio moldeak arautzen dituzten arauak ez dira Sozietateko kontratugilearen profilean argitaratu eta horrek SPKLTBren 191.b) artikuluan aurreikusitakoa urratzen du.

###### **STC-ELS, SA**

Sozietatearen Kontrataziorako Barne Aginpideek eskaintza bakarra eskatzeko beharra arautzen dute 50.000 eurotik beherako kontratuetan; honenbestez, ez dira bermatzen erregulazio harmonizatuari lotzen ez zaizkion kontratuak arautzen dituen SPKLTBren 191.b) artikuluan agindutako printzipioak. Kontratu txiki modura izapidetu diren 405.410 euroren gastuak egin dira; ordea, zegokion prozedura bitartez izapidetu behar ziratekeen (Ikus A.16.2 eranskina).



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

### ET-FV, SA

- Guztira 12,9 milioi euroren zenbatekoan esleitutako 7 espedientetan, prezio irizpidearen haztapena aldakorra zen, egiaz aurkeztutako eskaintzen arabera eta ondorioz, pleguetan esleitutako haztapena desitxuratua geratzen zen (A1 akatsa A.15.1 Eranskinean); eta horietako 6tan, 12 milioi euroren zenbatekoan, Klausula Orokorren Pleguak esleipen irizpide orokorrak zituen, proposatutako jarduera programa eta lanerako plana, esaterako (A3 akatsa A.15.1 eranskinean).
- Guztira 8 milioi euroan esleitutako 2 espedientetan kontratuaren xedearekin zerikusirik ez duten alderdiak balioztatzen dira, hala nola, lantaldea eta eskarmentua (A2 akatsa, A.15.1 eranskinean).
- Guztira 1,7 milioi euroan esleitutako 2 espedientetan, pleguek nahitaez betebeharreko betekizunak balioztatzen zituzten, hala nola, segurtasun eta osasun plana, kalitate plana, stock proposamena edo Bilbon areto bat izatea (A7 akatsa A.15.1 eranskinean).
- Guztira 10,5 euroan esleitutako 5 espedientetan txosten teknikoak ez zituen irizpide bakoitzari esleitutako puntuazioak arrazoitzen (B1 akatsa A.15.1 eranskinean).
- TETRA irrati-komunikazio sistema hornitu, instalatu eta abian jartzeko kontratuan, 850.139 euroan esleitu zenean, esleipen irizpideen haztapena txosten teknikoak ez zetorren bat pleguan aurreikusitakoekin (A.15.1 eranskina B2 akatsean).
- Guztira 6,7 milioi euroan esleitutako 5 kontratutan, esleipendunek gordailutako bermea administrazio klausulen pleguetan eskatzen zena baino txikiagoa izan da (C1 akatsa A.15.1 eranskinean).
- Guztira 12 milioi euroan esleitutako 6 kontratutan, esleipendunek bermea kontratua izenpetu eta 1 eta 3 hilabete bitarteko epean gordailatu zuten (C2 akatsa A.15.1 eranskinean).
- Kontratu txiki modura izapidetu diren 647.616 euroren zenbatekodun erosketak atzeman ditugu; sozietateak aztertu egin behar lituzke eta aurreikusgarri diren haiek bereizi eta haien BKAen arabera dagozkien prozedurari jarraiki izapidetu (ikus A.16.1 eranskina).

### STC-ELS, SA

- Guztira 911.438 euroren zenbatekoan esleitutako 11 kontratutan, prezio irizpidearen haztapena aldakorra zen, egiaz aurkeztutako eskaintzen arabera eta ondorioz, pleguetan esleitutako haztapena desitxuratua geratzen zen (A1 akatsa A.15.1 eranskinean); gainera, kontratuaren xedearekin zerikusirik ez duten alderdiak balioztatu ziren, hala nola, lantaldea eta eskarmentua (A2 akatsa, A.15.1 eranskinean) eta Klausula Orokorren Pleguak esleipen irizpide orokorrak zituen, proposatutako jarduera programa eta lanerako plana, esaterako (A3 akatsa A.15.1 Eranskinean). Parte-hartze eskabiderako eta/edo eskaintzak aurkezteko pleguetan ezarritako epeak ez du bermatzen publikotasun-printzipioa egiaz beteko denik, SPKLTBren 191. artikuluan ezarritakoari jarraiki (A4 akatsa A.15.1 eranskinean).



- Guztira 389.500 euroan esleitutako 5 kontratutan txosten teknikoak ez ditu irizpide bakoitzari esleitutako puntuazioak arrazoitzen (B1 akatsa A.15.1 eranskinean).

## VIKESA

- Guztira 16,4 milioi euroren zenbatekoan esleitutako 4 kontratutan, prezio irizpidearen haztapena aldarora zen, egiaz aurkeztutako eskaintzen arabera eta ondorioz, pleguetan esleitutako haztapena desitxuratu geratzen zen (A1 akatsa A.15.1 eranskinean).
- Eibarko Egazelaiaren 62 BOE egiteko proiektua idaztea, zuzendaritza eta ikuskaritza xede duen kontratutan, 320.000 euroan esleitutakoan, kontratuaren xedearekin lotu gabeko alderdiak balioztatu ziren, hala nola ISO 9001 ziurtagiria eta lan merkatura berriki txertatutako profesionalak 8A2 akatsa A.15.1 eranskinean); gainera, txosten teknikoan jasotako esleipen irizpideen haztapena ez zetorren bat pleguetan aurreikusitakoarekin (B2 akatsa A.15.1 eranskinean).
- 16,8 milioi euroan esleitutako 4 kontratutan BOPEk esleipen irizpide orokorrak dituzte, hala nola, eskaintzan zorrotasuna eta koherentzia izatea (A3 akatsa A.15.1 eranskinean).
- Guztira 15,8 milioi euroan esleitutako 2 kontratutan formula bidez neurgarriak ziren irizpideen arabera eskaintzen ebaluazioa ez zen formularik gabeko irizpideen haztapena egin ostean gauzatu (a5 akatsa A.15.1 eranskinean).
- Guztira 15,8 milioi euroan esleitutako 2 kontratutan txosten teknikoak ez zituen irizpide bakoitzari esleitutako puntuazioak arrazoitzen (B1 akatsa A.15.1 eranskinean).

Lehenago urteetan egindako esleipenei dagokienez:

- Basaurin Basconian 96 BOE eta 40 ES eraikitze kontratuetan, Borobizkarra - Zabalgaran 80 BOE eta 90 ES eraikitze kontratuetan eta Zabalgaran 4. sektorean 314 BOE eraikitze kontratuetan, obrak egikaritzean hurrenez hurren 2, 2,5 eta 1,5 hilabeteetako atzeraldiak izan dira (A akatsa A.15.2 eranskinean).
- Borobizkarra - Zabalgaran 80 BOE eta 90 ES eraikitze kontratuetan eta Zabalgaran 4. sektorean 314 BOE eraikitze kontratuetan, harrera-aktan hurrenez hurren 8 eta 4 hilabeteetako atzeraldiak izan dira (B akatsa A.15.2 eranskinean).

## III.3 BESTELAKO ALDERDIAK

### III.3.1 MERKATARITZAKO ERAGIKETETAN BERANDUTZA

Ordainketarako legezko gehieneko epea, erakunde eta sozietate publikoek 2010eko uztailaren 7az gerora egindako kontratuei ezargarria zaiena, aldi batean uztailaren 5eko 15/2010 Legearen hirugarren artikuluan, hirugarren atalean eta 2. XIn ezarria geratu zen; lege honek abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldarazten du, merkataritzako eragiketetan berandutzaren aurka borroka egiteko neurriak ezartzen zituena. Epe horiek 55 egunekoak



dira administrazioentzat eta 75 egunekoak SPKLn administrazio publiko izaera ez duten erakunde eta sozietate publikoentzat.

Gainera, 2011ko apirilaren 12ko Gobernu Kontseiluaren Erabaki bidez EA Eren Administrazio Orokorren baitako Sektore Publikoari dagokionez ordainketak 30 eguneko gehieneko epean egiteko obligazioa ezarri zen.

15/2010 Legean jasotako "Informatzeko betebeharra" 3. XGk agintzen du sozietate publikoek berariaz eman behar dituztela argitara euren Urteko Kontuen oroitidazkietan hornitzaileei ordaintzeko epeei buruzko informazioak.

ET-FV, SA: Ekitaldi itxieran lege ezarritako epea gainditzen duen ordaintzeko dagoen saldoa 3 milioi eurorena da eta gainditutako batez besteko ordainketa epea berriz, 40 eguneko.

Gainera, VISESAk bere oroitidazkian hornitzaileei ordaintzeko ezarritako epeei buruzko informazioa ematen du, 2011ko apirilaren 12ko Gobernu Kontseiluaren Erabakian ezarritakoen arabera; horiek legeak agintzen dituen epeak baino murriztaileagoak dira. Ekitaldi itxieran aipatutako Erabakiak ezarritako epea gainditzen duen ordaintzeko dagoen saldoa 52.000 eurorena da eta gainditutako batez besteko ordainketa epea berriz, 45 eguneko.

STC-ELS, SAK ez du oroitidazkietan egoki informatzen hornitzaileei ordaintzeko dituen epeez, izan ere, administrazio publikoei ezargarriak zaizkien epeak hartzen ditu beretzat, sozietate publikoentzat ezarritako 75 egunak beharrean, uztailearen 5eko 15/2010 Legearen 2. XIari jarraiki.

### III.3.2 EMANDAKO DIRU-LAGUNTZAK

STC-ELS, SAK lau diru-laguntza zuzenean eman zituen, 2,3 milioi eurorenak. Nahiz diru-laguntza hauek izenarekin jasoak dauden STC-ELS, SAKen ustiapen-aurrekontuan, EA Eren Aurrekontu Orokorretan barne hartua, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri-ogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onesten duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 48.5 artikulua zehazten du sozietate publikoek, zuzenbide pribatuko erakunde publikoek eta Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrekin finantzaturako bestelako erakundeek, zeinahi dela ere haien izaera edo molde juridikoa, diru-laguntza jarduera publikotasun, lehia eta objektibotasun printzipioetara meneratuko dutela (A akatsa A.18 eranskinean).

### III.3.3 HITZARMENAK

2011ko otsailaren 2an STC-ELS, SA eta Metaposta, SAKen artean izenpetutako lankidetzaren hitzarmenean eta aldean konturako prestazioen balioari dagokionez erabaki da Metaposta, SAK ordaindu beharreko ustiaketa prezioa honek jasoko lituzkeen mozkinen baitakoa izango dela, kopuru zehaztugabea izanik; hori, baina, ez zaio 2010eko Hitzarmen Markoari zehaztasunez egokitzen; izan ere, garapena berariazko akordioaren bitartez egingo dela dioen arren, non ezaugarri eta baldintzak ez ezik, aldean eskubide eta obligazioak zehaztuko diren, bi erakundeen arteko lankidetzaren oinarria proiektua ezarri eta garatzen eratorritako



arrisku eta mozkinak partekatzeko printzipioa izango da; alabaina, STC-ELS, SAK hitzarmenaren indarraldiko lehenengo urtean ez du kopururik batere ordaindu. 2012an bi aldaketa egin zitzaizkion 2011ko otsailaren 2ko lankidetzaz hitzarmenari, STC-ELS, Saren inbertsioei zegokienez, METAPOSTA proiektuarekin loturik. Bigarren aldaketak, 2012ko abenduaren 7koak, STC-ELS, Saren inbertsioak 8,9 milioi euroan finkatzen ditu. 2012an Metaposta, SAK ez dio STC-ELS, SARI kopururik batere ordaindu (ikus A.19 Eranskina).





#### IV. SOZETATE PUBLIKOEN URTEKO KONTUAK, 2012-KO ABENDUAREN 31-N AZTERTUTAKOAK

A. EGOERAREN BALANTZEAK 2012 eta 2011ko abenduaren 31n

Euroak milakotan

	Eransk.	ET-FV, SA		STC-ELS, SA		VISESA	
		2012	2011	2012	2011	2012	2011
<b>AKTIBO EZ ARRUNTA</b>		<b>219.941</b>	<b>183.707</b>	<b>433.600</b>	<b>449.968</b>	<b>19.419</b>	<b>21.188</b>
Ibilgetu ukiezina .....	A2	3.047	3.553	-	-	48	105
Ibilgetu materialak .....	A2	208.954	168.864	536	656	14.763	15.049
Ibilgetuko inbertsioak .....	A3	-	-	993	1.944	-	-
Taldeko eta elkartut. enpresen inberts. ....	A4	218	60	362.898	371.208	1.297	2.071
Finantza inbertsioak epe luzera .....	A5	484	373	67.182	73.269	2.216	2.601
Kobratzeko dauden kapitalezko diru-laguntzak .....		7.238	10.857	-	-	-	-
Merkataritzako zordun ez arruntak .....		-	-	-	-	-	-
Atzeratutako zergengatiko aktiboak.....		-	-	1.991	2.891	1.095	1.362
<b>AKTIBO ARRUNTA</b>		<b>57.161</b>	<b>72.849</b>	<b>41.079</b>	<b>43.916</b>	<b>320.094</b>	<b>362.037</b>
Kobratzeko dauden kapitalezko diru-laguntzak .....		7.319	24.761	-	-	-	-
Salmentarako gordetako aktibo ez arruntak .....		15.380	17.435	-	-	-	-
Izakinak.....	A6	2.371	2.404	-	-	284.942	325.492
Merkatar. zord. eta kobr. beste kntu batzuk.....		23.412	19.010	20.347	19.912	14.845	26.277
Taldeko eta elkartut. enpresen inberts. e/lab.....		-	-	-	-	-	-
Finantza inbertsioak epe laburrera.....		-	-	-	-	-	5
Aldizkakotzeak epe laburrera.....		-	-	-	13	33	45
Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak.....		8.679	9.239	20.732	23.991	20.274	10.218
<b>AKTIBOA GUZTIRA</b>		<b>277.102</b>	<b>256.556</b>	<b>474.679</b>	<b>493.884</b>	<b>339.513</b>	<b>383.225</b>
<b>ONDARE GARBIA</b>		<b>228.799</b>	<b>193.701</b>	<b>420.455</b>	<b>429.845</b>	<b>77.826</b>	<b>61.646</b>
Funts propioak .....	A7	23.700	29.669	415.335	422.410	67.321	41.815
Kapitala .....		72.394	72.394	419.731	418.631	36.902	23.094
Jaulkipen prima.....		-	-	-	-	15.527	4.334
Erretserbak .....		138	138	32.676	32.676	14.387	12.873
Aurreko ekitaldietako emaitzak .....		(42.863)	(40.016)	(28.897)	(20.756)	-	-
Ekitaldiaren emaitza .....		(5.969)	(2.847)	(8.175)	(8.141)	505	1.514
Konturako dibidendua .....		-	-	-	-	-	-
Diru-laguntzak, dohaintzak eta jasotako legatuak.....	A8	205.099	164.032	5.120	7.435	10.505	19.831
<b>PASIBO EZ ARRUNTA</b>		<b>16.972</b>	<b>13.710</b>	<b>21.444</b>	<b>27.503</b>	<b>5.261</b>	<b>10.466</b>
Epe luzeko hornidurak .....	A9	926	898	-	5	1.176	2.754
Kapital diru-laguntzek eragindako aurrerakinak.....	A8	7.505	-	-	-	-	-
Epe luzeko zorrak .....		8.541	12.812	-	-	-	-
Taldeko eta elkartutako enpresekiko epe luzeko zorrak .....	A11	-	-	19.453	24.607	-	-
Atzeratutako zergengatiko aktiboak.....		-	-	1.991	2.891	4.085	7.712
<b>PASIBO ARRUNTA</b>		<b>31.331</b>	<b>49.145</b>	<b>32.780</b>	<b>36.536</b>	<b>256.426</b>	<b>311.113</b>
Salmentarako gordetako akt. ez arrunt. lotut. pas. ....		-	-	-	-	-	-
Epe laburreko zuzkidurak.....		-	-	-	-	22.319	25.939
Zorrak epe laburrera .....	A10	14.901	36.028	-	-	183.946	227.407
Taldeko eta elkart. enpres. epe labor. zorrak .....	-	-	746	741	-	-	-
Merkatar. hartz. eta kobr. bte kntu batzuk .....	A10	15.161	11.997	32.034	35.795	50.161	57.767
Aldizkakotzeak epe laburrera.....		1.269	1.120	-	-	-	-
<b>ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA</b>		<b>277.102</b>	<b>256.556</b>	<b>474.679</b>	<b>493.884</b>	<b>339.513</b>	<b>383.225</b>



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## B. 2012 eta 2010ko ekitaldietako GALERA-IRABAZIEN KONTUAK

Euroak milakotan

	Eransk.	ET-FV, SA		STC-ELS, SA		VISESA	
		2012	2011	2012	2011	2012	2011
Negoio zifratik zenbateko garbia .....	A14	25.143	24.679	1.376	1.406	83.008	107.334
Fabrik.amaitut. eta abiango produkt. izak. bariak. ....		-	-	-	-	(37.946)	(36.712)
Enpresak aktiborako egindako lanak .....		-	-	-	-	308	374
Hornidurak.....	A13	(5.545)	(4.852)	-	-	(56.808)	(65.206)
Bestelako ustiaketa sarrerak .....	A14	42.661	43.173	55.247	35.643	2.151	2.950
Langileria-gastuak .....	A12	(37.168)	(38.919)	(4.998)	(5.291)	(3.068)	(3.259)
Bestelako ustiaketa gastuak .....	A13	(26.192)	(21.723)	(53.821)	(35.907)	3.458	(6.623)
Ibilgetuaren amortizazioa.....		(16.832)	(13.560)	(211)	(242)	(666)	(635)
Ibilgetu ez finantzarioko diru-laguntzak egoztea.....		13.853	9.418	906	4.268	13.751	5.344
Hornidura gehiegizkoak.....		-	4	-	-	-	-
Narriadura eta ibilget. emaitza eta bestel. emaitzak .....		(1.937)	(1.362)	(804)	(608)	-	-
Aparteko gastu eta sarrerak .....		-	-	-	-	-	-
<b>USTIAKETAREN EMAITZA</b>		<b>(6.017)</b>	<b>(3.142)</b>	<b>(2.305)</b>	<b>(731)</b>	<b>4.188</b>	<b>3.567</b>
<b>Emaita finantzarioa</b>		<b>48</b>	<b>295</b>	<b>(4.970)</b>	<b>(6.014)</b>	<b>(3.415)</b>	<b>(2.466)</b>
Mozkinen gaineko zerga		-	-	(900)	(1.396)	(268)	413
<b>EKITALDIAREN EMAITZA, ERAGIKETA JARRAITUETATIK ERATORRITAKOIA</b>							
<b>JARRAITUETATIK ERATORRITAKOIA</b>		<b>(5.969)</b>	<b>(2.847)</b>	<b>(8.175)</b>	<b>(8.141)</b>	<b>505</b>	<b>1.514</b>
<b>EKITALDIAREN EMAITZA</b>		<b>(5.969)</b>	<b>(2.847)</b>	<b>(8.175)</b>	<b>(8.141)</b>	<b>505</b>	<b>1.514</b>

## C. ONDARE GARBIAN ALDAKETEN EGOERA GUZTIRA, 2012 ETA 2011-EKO ABENDUAREN 31-N

### 1. AITORTUTAKO SARRERA ETA GASTUEN EGOERA, 2012 ETA 2011-KO EKITALDIEI DAGOKIENA

Euroak milakotan

	ET-FV, SA		STC-ELS, SA		VISESA	
	2012	2011	2012	2011	2012	2011
<b>A) Galera eta irabazien kontuaren emaitza)</b>	<b>(5.969)</b>	<b>(2.847)</b>	<b>(8.175)</b>	<b>(8.141)</b>	<b>505</b>	<b>1.514</b>
<b>B) Ondare Garbian zuzenean jasotako sarrera eta gastuak guztira</b>	<b>54.919</b>	<b>84.361</b>	<b>-</b>	<b>-</b>	<b>574</b>	<b>2.000</b>
Jasotako diru-laguntza, dohaintza eta legatuak	54.519	84.361	-	-	797	2.788
Eragin Fiskala	-	-	-	-	(223)	(788)
<b>c) Galera eta irabazien konturako transferentziak</b>	<b>(13.853)</b>	<b>(9.418)</b>	<b>(2.315)</b>	<b>(3.589)</b>	<b>(9.901)</b>	<b>(3.848)</b>
Jasotako diru-laguntza, dohaintza eta legatuak	(13.853)	(9.418)	(3.216)	(4.985)	(13.751)	(5.344)
Eragin Fiskala	-	-	901	1.396	3.850	1.496
<b>AITORTUTAKO SARRERAK ETA GASTUAK GUZTIRA</b>	<b>35.097</b>	<b>72.096</b>	<b>(10.490)</b>	<b>(11.730)</b>	<b>(8.822)</b>	<b>(334)</b>



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## ET-FV, SA

### 2. ONDARE GARBIA ALDAKETEN GUZTIZKO EGOERAK

Euroak milakotan

	Eskrituran jasotako kapitala	Aurreko			Jasotako	
		Erretserb.	ekitaldietako emaitzak	Ekitaldiaren emaitza	diru-lag., dohaint.	
					eta legatuak	Guztira
<b>SALDOA 2011-KO URTARRILAREN 1-EAN</b>	<b>72.394</b>	<b>138</b>	<b>(36.248)</b>	<b>(3.768)</b>	<b>89.089</b>	<b>121.605</b>
Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira .....	-	-	-	(2.847)	74.943	72.096
Ondare garbiaren bestel. aldaketak .....	-	-	(3.768)	3.768	-	-
<b>SALDOA 2012-KO URTARRILAREN 1-EAN</b>	<b>72.394</b>	<b>138</b>	<b>(40.016)</b>	<b>(2.847)</b>	<b>164.032</b>	<b>193.701</b>
Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira .....	-	-	-	(5.969)	41.067	35.098
Ondare garbiaren bestel. aldaketak .....	-	-	(2.847)	2.847	-	-
<b>SALDOA 2012-KO ABENDUAREN 31-N</b>	<b>72.394</b>	<b>138</b>	<b>(42.863)</b>	<b>(5.969)</b>	<b>205.099</b>	<b>228.799</b>

## STC-ELS, SA

### 3. ONDARE GARBIA ALDAKETEN GUZTIZKO EGOERAK

Euroak milakotan

	Eskrituran jasotako kapitala	Eskatu gabe- ko kapitala	Aurreko ekit.		Jasotako		
			Bestelako erretserbak	emaitza negatiboak	Ekitaldiaren emaitza	diru-lag., dohaint.	
						eta legatuak	Guztira
<b>SALDOA 2011-KO URTARRILAREN 1-EAN</b>	<b>395.631</b>	<b>(10.025)</b>	<b>32.676</b>	<b>(7.712)</b>	<b>(13.045)</b>	<b>11.024</b>	<b>408.549</b>
Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira.....	-	-	-	-	(8.141)	(3.588)	(11.729)
2010eko ekitaldiko emaitzaren banaketa .-	-	-	(13.045)	13.045	-	-	-
Bazkide edo jabeekiko eragiketak							
- Kapitalaren igoerak.....	23.000	10.025	-	-	-	-	33.025
<b>SALDOA 2011-KO ABENDUAREN 31-N</b>	<b>418.631</b>	<b>-</b>	<b>32.676</b>	<b>(20.757)</b>	<b>(8.141)</b>	<b>7.436</b>	<b>429.845</b>
Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira.....	-	-	-	-	(8.175)	(2.315)	(10.490)
2011ko ekitaldiko emaitzaren banaketa ...-	-	-	(8.141)	8.141	-	-	-
Bazkide edo jabeekiko eragiketak							
- Kapitalaren igoerak.....	1.100	-	-	-	-	-	1.100
<b>SALDOA 2012-KO ABENDUAREN 31-N</b>	<b>419.731</b>	<b>-</b>	<b>32.676</b>	<b>(28.897)</b>	<b>(8.175)</b>	<b>5.120</b>	<b>420.455</b>

## VIESA

### 4. ONDARE GARBIA ALDAKETEN GUZTIZKO EGOERAK

Euroak milakotan

	Eskrituran jasotako kapitala	Erretserbak	Aurreko ekit.		Jasotako.		
			Jaulkipen saria	emaitza negatiboak	Ekitaldiaren emaitza	diru-lag., dohaint.	
						eta legatuak	Guztira
<b>HASIERAKO SALDOA, 2011 URTEA</b>	<b>23.094</b>	<b>10.861</b>	<b>4.334</b>	-	<b>2.012</b>	<b>21.679</b>	<b>61.980</b>
Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira.....	-	-	-	-	1.514	(1.848)	(334)
2010eko ekitaldiko emaitzaren banaketa .....	-	2.012	-	-	(2.012)	-	-
<b>AZKEN SALDOA, 2011-KO URTEA</b>	<b>23.094</b>	<b>12.873</b>	<b>4.334</b>	-	<b>1.514</b>	<b>19.831</b>	<b>61.646</b>
Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira.....	-	-	-	-	505	(9.326)	(8.821)
Bazkide edo jabeekiko eragiketak							
- Kapitalaren igoerak.....	13.808	-	11.193	-	-	-	25.001
2011ko ekitaldiko emaitzaren banaketa .....	-	1.514	-	-	(1.514)	-	-
<b>SALDOA 2012-KO ABENDUAREN 31-N</b>	<b>36.902</b>	<b>14.387</b>	<b>15.527</b>	-	<b>505</b>	<b>10.505</b>	<b>77.826</b>



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

D. ESKUDIRUZKO FLUXUEN EGOERA 2012 ETA 2011-KO ABENDUAREN 31-N

Euroak milakotan

		ET-FV, SA		ELS, SA (*):		VISESA	
		2012	2011	2012	2011	2012	2011
<b>USTIAKETA JARDUEREN ESKUDIRUZKO FLUXUAK</b>	<b>(i)</b>	<b>(2.001)</b>	<b>(4.598)</b>	<b>(6.189)</b>	<b>(37.480)</b>	<b>19.501</b>	<b>11.069</b>
Ekitaldiaren emaitza zerga aurretik		(5.969)	(2.847)	(7.274)	(6.745)	773	1.101
<b>Emaitzaren doiketak</b>		<b>5.980</b>	<b>5.654</b>	<b>5.173</b>	<b>2.382</b>	<b>(12.004)</b>	<b>4.410</b>
- Ibilgetuaren amortizazioa .....		16.832	13.560	211	243	666	635
- Arrisku eta gastuetarako zuzkidurak .....		1.023	54	(5)	(52)	(2.026)	7.028
- Ibilgetuaren baja eta besterenganatzeengatik emaitzak .....		2.017	1.658	-	-	-	-
Baja eta baliabide finantzarioak besterenganatzeengatik emaitzak		-	-	-	-	774	(288)
- Kapital diru-laguntzen egozketa .....		(13.853)	(9.418)	(3.216)	(4.985)	(13.751)	(5.344)
- Sarrera finantzarioak .....		(85)	(324)	(90)	(493)	(40)	(114)
- Finantza gastuak .....		34	29	2.310	717	2.681	2.868
- Narriaduragatiko balorazio-zuzenketak .....		12	95	5.963	6.502	-	-
- Bestelako sarrerak/gastuak .....		-	-	-	450	(308)	(375)
<b>Kapital arruntean aldaketak</b>		<b>(2.063)</b>	<b>(7.718)</b>	<b>(4.178)</b>	<b>(33.610)</b>	<b>33.914</b>	<b>10.060</b>
- Izakinak .....		21	(44)	-	-	37.227	30.467
- Zordunak eta kobratz. bst. kontu batzuk .....		(5.152)	(8.498)	(435)	13.550	4.276	9.299
- Beste aktibo arrunt batzuk .....		-	1	13	4	17	39
- Hartzekod. eta ordaintz. bst. kontu batzuk .....		3.164	803	(3.756)	(47.164)	(7.606)	(29.745)
- Beste pasibo arrunt batzuk .....		149	74	-	-	-	-
- Beste aktibo eta pasibo ez arruntak .....		(245)	(54)	-	-	-	-
<b>Ustiaketa jardueren eskudiruzko beste fluxu batzuk</b>		<b>51</b>	<b>313</b>	<b>90</b>	<b>493</b>	<b>(3.182)</b>	<b>(4.502)</b>
- Interesen ordainketak .....		(34)	(29)	-	-	(2.681)	(2.910)
- Mozkinen gaineko zergaren ordainketa .....		-	-	-	-	(541)	(1.706)
- Interesen kobrantzak .....		85	342	90	493	40	114
<b>INBERTSIO-JARDUEREN ESKUDIRUZKO FLUXUAK</b>	<b>(II)</b>	<b>(82.045)</b>	<b>(48.500)</b>	<b>1.830</b>	<b>(40.054)</b>	<b>(16)</b>	<b>1.416</b>
Inbertsioek erag. ordainketak .....		(82.088)	(48.886)	(1.145)	(40.054)	(16)	(975)
Inbertsio ezagatiko kobrantzak .....		43	386	2.975	-	-	2.391
<b>FINANTZAKETA JARDUEREN ESKUDIRUZKO FLUXUAK</b>	<b>(III)</b>	<b>83.486</b>	<b>27.719</b>	<b>1.100</b>	<b>30.502</b>	<b>(9.429)</b>	<b>(7.454)</b>
Ondareko baliabideengatik kobrantza eta ordainketak .....		83.486	27.708	1.100	33.025	34.032	12.711
Finantza pasiboko baliabideen kobrantza eta ordainketak .....		-	11	-	(2.523)	(43.461)	(20.165)
<b>ESKUDIRU EDO BALIOKIDEEN IGOERA/MURRIZKETA GARBIA (I+II+III)</b>		<b>(560)</b>	<b>(25.379)</b>	<b>(3.259)</b>	<b>(47.032)</b>	<b>10.056</b>	<b>5.031</b>
Eskudirua edo baliokidea ekitaldi hasieran .....		9.239	34.618	23.991	71.023	10.218	5.187
Eskudirua edo baliokidea ekitaldi amaieran .....		8.679	9.239	20.732	23.991	20.274	10.218



## **ALEGAZIOAK, ZUZENBIDE PRIBATUKO ERAKUNDE PUBLIKOEN ETA SOZIETATE PUBLIKOEN 2012-KO KONTUEN FISKALIZAZIO TXOSTENARI JAVIER SERRANO CHAMIZO JAUNAK JARRITAKOAK, EKONOMIA KONTROLERAKO BULEGOAREN ZUZENDARI OHIA DENAK.**

Honekin batera, EAEren Zuzenbide Pribatuko Erakunde Publiko eta Sozietate Publikoen 2012ko Kontuen fiskalizazio txostenari jarritako alegazioak.

### **III.3.2 EMANDAKO DIRU-LAGUNTZAK**

Sozietatearen Aurrekontuetan izenez esleitutako kontu-sail bat izateak, laguntza hori publikotasun, lehia eta objektibotasun printzipioak betetzetik salbuesteko bide ematen du (Euskal Autonomia Erkidegoko Herri-ogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 49.6 artikulua); honenbestez, atal hori ezabatzeko eskatzen dugu<sup>1</sup>

---

<sup>1</sup> Ez-betetzean bertan adierazi den legez, EAEHONALTBen 48.5 artikulua, bigarren paragrafoan zehazten du Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrekin finantzaturako sozietate publikoek, zuzenbide pribatuko erakunde publikoek eta bestelako erakundeek, zeinahi dela ere haien izaera edo molde juridikoa, diru-laguntza jarduera publikotasun, lehia eta objektibotasun printzipioetara meneratuko dutela. Bestetik, eta aurreko 48.5 artikuluan



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ZUZENBIDE PRIBATUKO ERAKUNDE PUBLIKOEN ETA SOZIETATE PUBLIKOEN 2012KO EKITALDIARI DAGOKION FISKALIZAZIOAREN

### I.- SARRERA

Euskal Autonomia Erkidegoko Zuzenbide Pribatuko Erakunde Publikoen eta Sozietate Publikoen 2012. urteari dagokion Fiskalizazioaren Emaitzei erantzuteko, erreferentziazko gaiaren inguruan erakunde bakoitzak egin nahi izan dituen eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoan zentralizatu diren alegazioak eta justifikazioak aurkeztu dira txosten honetan.

### ALEGAZIOAK-ET-FV, SA

#### II. IRITZIA

##### II.1 LEGEZKOTASUNA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

##### II.1.2 LANGILEAK

1.- 2012rako Estatuaren Aurrekontu Orokorrak onartu zituen ekainaren 29ko 2/2012 Legeak mugatu egiten zituen sektore publikoko langileen kontratazioak ekitaldi horretan. 23. Xedapen Gehigarriak ezartzen zuenaren arabera, merkataritza-sozietate publikoek ezin zuten langilerik kontratatu, salbuespen hauekin: aurreko ekitaldietan hasitako deialdien kasuan edo Legea hau indarrean sartzean gauzatzen ari ziren hainbat urtetarako plan edo programen esparruan derrigorrezkoa bazen.

ET-FV SA sozietateak ez du 23. Xedapen Gehigarria bete, 70 langileri kontratu mugagabea egin baitie.

##### *ALEGAZIOAK*

*Estatuaren 2012ko Aurrekontu Orokorren ekainaren 29ko 2/2012 Legearen Hogeita Hirugarren Xedapen Gehigarriak hau ezartzen du:*

*Hogeita hirugarrena. Merkataritza-sozietate publikoek 2012an langileak kontratatzea.*

*Bat. 2012an, Lege honen 22. artikuluko Bat idatz-zatian aipatzen diren merkataritza-sozietate publikoek ezin izango dute langile berririk kontratatu, salbuespen hauekin: aurreko ekitaldietan hasitako deialdietan egin beharreko kontratazioak edo Legea hau indarrean sartzean gauzatzen ari ziren hainbat urtetarako plan edo programen esparruan derrigorrezkoak diren kontratazioak.*

*Ohiz kanpoko egoeretan, eta premiazko eta ezin luzatuzko beharrak estaltzeko, aldi baterako kontratazioak egin ahal izango dituzte.*

*Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrek –Eusko Legebiltzarren abenduaren 23ko 6/2011 Legeak onetsitakoek– ezartzen zuten ET-FV SAko 2012. ekitaldirako aurrekontu-plantillan 754 pertsona zeudela, eta 115 langileren aldi baterako kontratazioa baimentzen zela; hau da, guztira, 869 langile zirela. Horren guztiaren xedea zen dagokion Aurrekontu Memorian ezarritako*



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

*helburuak betetzea, eta helburu horiek indarrean zeuden eta gauzatzen ari ziren, 2/2012 Legea indarrean sartu zenean.*

*Garraio-zerbitzua ustiatzeak berekin dakartzan baldintzak direla eta (neguan eta udan, zerbitzu-mailak desberdinak dira; zerbitzua emateak lehentasuna dauka; ABE egoerak estali behar dira; eta.), ET-FV SAK uste du baimendutako plantilla urteko kopurutan aintzat hartu behar dela, eta langile bakoitzak egiten duen lanaldi eraginkorraren arabera; alegia, urteko batez besteko baliokidearen arabera (urteko batez besteko hori urtean benetan lan egindako egunei dagokie, urteko 1.592 orduen arabera).*

*Irizpide horren arabera, eta aurrekontua eta legezkontasuna betetzeari buruzko txostenean adierazitakoa kontuan harturik, sozietateak 870 langile izan ditu, batez beste, 2012. ekitaldian.*

2.- ET-FV SAK langile finko bat kontratatu zuen, eta aldi baterako hiru kontratu egin zituen, aukeratze-prozesurik gabe; hots, enplegu publikoa arautzen duten berdintasunaren, merezimenduaren eta gaitasunen printzipioak ez dira bete.

#### ALEGAZIOAK

*ET-FVko langileen kontratazioa hitzarmen kolektiboan dago araututa, eta oro har, lan-poltsen bidez egiten da. Lan-poltsa horietan sartu nahi dutenek zenbait ariketa gainditu behar dituzte, eta hautagaiak puntuazio-ordenaren arabera ordenatzen dira. Arau orokor hori, ordea, ez da aplikatzen onartutako eta indarreko lan-poltsarik ez dagoen kasuetan. Kasu horietan, enplegu-zerbitzu publikoak (Lanbide) eta, banan banako eskaintzen bitartez, enpresa espezializatuetauko aukeratze-prozesuak erabiltzen dira, aldi baterako langileak aukeratzeko (ABE egoeretan edo oporretan dauden langileak ordezkatzeko, zerbitzuak areagotzeko, etab.).*

*2010. ekitaldian, zenbait aukeratze-prozesu egin ziren enpresa espezializatuen bidez, eta horien ondorioz, kontratu mugagabeak izan ziren, baina, aurrekontu-murrizketak direla eta, frogaldian deuseztatu egin behar izan ziren. Hala ere, prozesu horiek eragin zituzten lan-beharrak areagotu egin ziren, tren-unitateen kopurua handitu egin baitzen. Beraz, 2012. ekitaldian, 2010ean aukeratutako pertsona horietako bat lanean hasi zen ET-FV SAn, berdintasunaren, merezimenduaren eta gaitasunen printzipioei jarraituz.*

*2012. ekitaldian zehar, onartutako eta indarrean zegoen lan-poltsatik ez zegoenez zenbait kategoria profesionaletan; aldi baterako kontratatu zen alde zurretik esperientzia zeukan pertsona bat, Euskal Herriko Unibertsitatearekin sinatutako lankidetzeta-hitzarmena bukatu zelarik (hitzarmen horrek enpresetan praktikak egiteko helburua zuen) bere lan-kontratua iraungitakoan.*

*Halaber, langile finko bat kontratatu zuen enpresa espezializatu baten bidez; enpresa horrek deialdia zabaldu eta hautagaien azken zerrenda bat proposatu zuen. Sozietateak ez zion kontratatutako enpresari eskatu hautagai horiek hautatzeko garaian berdintasunaren, merezimenduen eta gaitasunen printzipioak betetzen*



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

*zirela egiaztatzeko aukera ematen zuen dokumentazioa aurkez zezan; horregatik, ezin izan da egiaztatu printzipio horiek betetzen diren ala ez.*

#### ALEGAZIOAK

*Hautagaiak aukeratzen dituzten enpresa espezializatuek berdintasunaren, merezimenduaren eta gaitasunen printzipioak aintzat hartzen dituzte, bai baitakite ET-FV enpresa publikoa dela eta printzipio horiei lotuta dagoela. Egindako aukeratze-prozesuak egiaztatzen dituen dokumentazioa enpresa horien fitxategietan dago.*

Langileak hautatzeko kanpoko enpresak proposatutako hautagaien azken zerrenda ez zegoen puntuen arabera ordenatuta, eta ez zen argitaratu kontratatutako pertsonarekin zer kontratu-mota sinatuko zen.

#### ALEGAZIOAK

*Prozesuen azken zerrendak puntuazioaren arabera ordenatzen dira beti; horretarako, hautagaiak aukeratze-prozesuko fase bakoitzean lortutako emaitzak hartzen dira kontuan, bai eta lanpostuari begira prestakuntza-maila egokia duen ere.*

*Oro har argitaratzen den informazioan, zer lanpostu-mota eskatzen den eta hautagaiak zer profil izan behar duten zehazten da, langileak aukeratzen espezializatutako enpresek erabilitako estandarren arabera.*

*Kontratazio horien oinarritzko ezaugarriak deialdi bakoitzaren oinarrietan azaltzen dira.*

Halaber, aldi baterako langile bat aukeratzeko, langileak hautatzeko enpresa bat kontratatu zen, Lanbidek proposatutako zazpi hautagaien curriculumak ebalua zitzaizkien. Enpresa horrek emandako dokumentazioa aztertuta ezin da egiaztatu hautagaien aukeratze-prozesu horretan berdintasunaren, merezimenduaren eta gaitasunen printzipioak bete direnik. Gainera, langileak hautatzeko kanpo-enpresak alde batera utzitako hautagaietako bat kontratatu zuen ET-FV SAK. Kanpo-enpresaren arabera, hautagai horren gaitasun-profila ez zen egokia lanpostuaren eskakizunak betetzeko, eta ET-FVk ez zuen erabakia justifikatu.

#### ALEGAZIOAK

*ET-FVko langileen kontratazioa hitzarmen kolektiboan dago araututa, eta oro har, lan-poltsen bidez egiten da. Lan-poltsa horietan sartu nahi dutenek zenbait ariketa gainditu behar dituzte, eta hautagaiak puntuazio-ordenaren arabera ordenatzen dira. Arau orokor hori, ordea, ez da aplikatzen onartutako eta indarreko lan-poltsarik ez dagoen kasuetan. Kasu horietan, enplegu-zerbitzu publikoak (Lanbide) eta, banan banako eskaintzen bitartez, enpresa espezializatuak aukeratze-prozesuak erabiltzen dira, aldi baterako langileak aukeratzeko (ABE egoeretan edo oporretan dauden langileak ordezkatzeko, zerbitzuak areagotzeko, etab.).*





Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

*Aipatutako prozesuan, EF-FV SAK Lanbideren zein enpresa espezializatu baten zerbitzuak erabili zituen, hautagaien gaitasun pertsonalak eta gaitasun orokorrak baloratzeko.*

*Enpresa espezializatuak hautagaiak ebaluatzen zituen bitartean, ET-FV SAK, bere aldetik, aukeratze-prozesuko hautagaien gaitasun teknikoak baloratu zituen, langilearen beharra zeukan arloaren behar zehatzak aintzat hartuta. Balorazio horren ondorioz, eta arlo horrek egindako txostenean eman zuen azken proposamenaren arabera, lanpostuaren profil teknikoarekin ondoen bat zetorren hautagaia kontratatatu zen.*

### **II.1.3 ONDASUN ETA ZERBITZUEN KONTRATAZIOA**

#### **ET-FV, SA**

3.- Kontratu txiki modura izapidetu diren 744.320 euroren gastuak egin dira; ordea, Kontrataziorako Barne Aginpideen arabera zegokion prozedura bitartez izapidetu behar ziratekeen (Ikus A.16.1 Eranskina).

#### *ALEGAZIOAK*

*Aipatutako hemeretzi espedientetatik, zazpi ez ziren kontratu txiki gisa izapidetu; izan ere, prozedura negoziatuaren bidez izapidetu ziren, eskaintza bakar baten eskaeraren bidez, ET-FV SAKen Kontratazioko Barne Jarraibideen 3.5. idatz-zatian adierazitakoaren arabera. Hauek dira espediente horiek:*

*Ekipo eta material mugikorretatik amiantoa kentzea.*

*Publizitate-kanpainak irratietan.*

*Tranbien motorren azterketa.*

*Larraineta eta Zugaztieta arteko autobus-zerbitzua.*

*Itziar eta Elgeta arteko taxi busa.*

*Eibar eta Deba arteko taxi busa.*

*Aurrekontua eta legezketasuna betetzeari buruzko txostena, eta auditoria-berrikuspen mugatua.*

### **II.1.4 BABESLETZA KONTRATUAK**

8.- ET-FV SA sozietateak babesletza-kontratu bat egin zuen, 45.000 euroan, eta zuzenean esleitu zuen, publizitaterik eta lehiarik gabe (A.17 eranskineko A hutsunea).

#### *ALEGAZIOAK*

*ET-FV SAK babesletza-kontratu bat sinatu zuen Traineru Kluben Elkartearekin (ACT), urteko 45.000 euroan, "Euskotren" marka ACTk emakumezkoen ligan garatuko zituen jardueretan zabaldu nahi baitzuen.*



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

### III. BARNE-KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA-PROZEDUREI BURUZKO GOGOETAK

Paragrafo honetan, ekonomia- eta finantza-arloko jarduera arautzen duten printzipioak betetzeari modu garrantzitsuan eragiten ez dieten hutsuneak eta kudeaketa hobetzeko agerian jartzen diren prozedura-alderdiak aipatzen dira.

#### III.1 LANGILEAK

ET-FV SA 2009. ekitalditik, Sozietatea beste antolaketa-egitura bat ari da ezartzen, eta horren ondorioz, 2012an, 13 langileren barne-igoerako prozesua egin zen. Hala ere, prozesu horretan, ez zen bermatu hautagaiak aukeratzean berdintasunaren, merezimenduaren eta gaitasunen printzipioak betetzea.

##### *ALEGAZIOAK*

*Antolaketa-egitura berriak enpresako erantzukizun-arlo guztietan izan du eragina; besteak beste, zuzendaritza-kopurua txikitu eta arloak multzokatu egin dira. Beraz, pertsonak beren erantzukizun- eta erabaki-esparru berrira egokitu beharra egon da.*

#### III.2 ONDASUNEN ETA ZERBITZUEN KONTRATAZIOA

##### III.2.1 KONTRATAZIO ESPEDIENTEAK

Ekitaldi honetan esleitutako kontratazio-espeditenteak aztertu eta aurreko ekitaldietan esleitutako espeditenteen jarraipena egin ondoren (espeditente horiek A.15 eranskinen aztertu dira), honako alderdi hauek nabarmenduko ditugu:

##### **Kontrataziorako Barne Jarraibideak**

###### **ET-FV, SA**

Sozietatearen kontratazio-prozedurak arautzen dituzten arauak ez daude Kontratugilearen Profilean argitaratuta. Hortaz, SPKLTBren 191.b artikulukan aurreikusitakoa ez da betetzen.

##### *ALEGAZIOAK*

*ET-FV SAren Kontratugilearen Profilean, Kontratazioko Barne Jarraibideen laburpen bat dago argitaratuta, eta elementurik garrantzitsuenak aipatzen dira.*

###### **ET-FV, SA**

12,9 milioi euroan esleitutako 7 espeditentetan, prezioaren irizpidearen haztapena aldakorra izan zen, aurkeztutako eskaintzen arabera; alegia, agirietan emandako haztapena indargabetuta geratzen da (A.15.1 eranskineko A1 hutsunea). Gainera, Baldintza Orokorren Agiriak esleipen-irizpide generikoak zituen –hala nola, proposatutako jarduera-programa eta lan-plana– (A.15.1 eranskineko A3 hutsunea).

##### *ALEGAZIOAK*

*ET-FV SAK egindako kontratazioetan, prezioaren irizpidearen haztapena egiteko, formula matematiko hau erabiltzen da:*



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

*Eskaintzaren puntuazioa  $n$ : gehieneko puntuazioa  $x$  (eskaintza onenaren prezioa/ $n$  eskaintzaren prezioa).*

*Formula horren bidez bermatzen da zenbateko txikieneko eskaintza ekonomikoak Baldintzen Agirian ezarritako puntuazio onena lortzea, eta gainerako eskaintzek lortzen duten puntuazioa beren zenbatekoaren eta eskaintza merkeenaren zenbatekoaren arteko erlazio proportzionalaren arabera izatea.*

*Orokorrean, Baldintzen Agirietan eta haien karatulan, ez da prezioaren irizpidearen haztapenik ezartzen; kontzeptu horrengatik eman daitekeen puntuazio maximoa zein den baino ez da adierazten, eta puntuazio maximo hori zenbateko txikieneko eskaintza ekonomikoari ematen zaio, azaldutako formularen arabera.*

*Txostenean adierazitako bigarren hutsuneari dagokionez (esleipen-irizpide generikoak), banan-banan xehatuko ditugu espedienteak:*

*1.- Uniformeen hornidura.*

*Lehiaketaren agiriek ez dituzte txostenean adierazitako irizpide generikoak aintzat hartzen, honako hauek baizik: produktuaren egokitasun teknikoa lehiaketaren oinarrietara, berme-baldintzak, eskainitako hobekuntzak, stock-proposamena, neurriak hartzea eta entrega-baldintzak. Beraz, ez da adierazitako hutsunea hautematen.*

*2.- Babesa eta zaintza Gasteizen.*

*Lehiaketaren agiriek ez dituzte txostenean adierazitako irizpide generikoak aintzat hartzen, honako hauek baizik: prestakuntza-plana; jarduera kontrolatzeko eta haren jarraipena egiteko sistemaren diseinua; eta ikuskaritza-sistemaren, komunikazio-sistemaren, zerbitzu-planaren eta antolaketa-hobekuntzen memoria deskriptiboa. Beraz, ez da adierazitako hutsunea hautematen.*

*3.- Salmenta-makinen hornidura.*

*Lehiaketaren agiriek ez dituzte txostenean adierazitako irizpide generikoak aintzat hartzen, honako hauek baizik: eskaintza teknikoa (antzeko proiektuetan egindako lanaren erreferentziak eta esperientzia; laneko segurtasuna eta osasuna; kalitate-plana; kalitatea kontrolatzeko plana; kalitatea bermatzeko plana; proba-plana; mantentze-plana; fidagarritasun-, prestasun- eta mantengarritasun-plana; eta prestakuntza-plana), bermeak eta hobekuntzak (kosturik gabeko ekarpen gehigarriak), eta entrega-epeak. Beraz, ez da adierazitako hutsunea hautematen.*

*4.- Salgaien manipulazioa eta garraioa.*

*Lehiaketaren agiriek ez dituzte txostenean adierazitako irizpide generikoak aintzat hartzen, honako hauek baizik: proposamen teknikoa (“beroko harilaren produktu baliokideen eta desugertutako harilaren egoeretarako proposatutako prozedura teknikoa eta materialak xehatuko dira: manipulazioa, biltegiatzea eta garraioa”) eta hobekuntzak (kosturik gabeko ekarpen gehigarriak). Beraz, ez da adierazitako hutsunea hautematen.*

*5.- Zaintza, I. eta II. loteeak.*



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

*Lehiaketaren agiriek ez dituzte txostenean adierazitako irizpide generikoak aintzat hartzen, honako hauek baizik: prestakuntza-plana; jarduera kontrolatzeko eta haren jarraipena egiteko sistemaren diseinua; eta ikuskaritza-sistemaren, komunikazio-sistemaren eta zerbitzu-planaren memoria deskriptiboa; bermeak; eta hobekuntzak. Beraz, ez da adierazitako hutsunea hautematen.*

6.- Garbiketa, I. eta II. loteak.

*Lehiaketaren agiriek ez dituzte txostenean adierazitako irizpide generikoak aintzat hartzen, honako hauek baizik: proposatutako garbiketa-plana (langileak, tresnak, makineria eta baliabide osagarriak, garbitzeko materialak eta produktuak, eta garbiketa-planaren betetze-maila), enpresaren ezaugarriak (egitura teknikoa, antolaketa-egitura, prestakuntza, instalazioak eta hobekuntza-planak), bermeak eta hobekuntzak, homologazioak edota ziurtagiriak, eta segurtasun-plana. Beraz, ez da adierazitako hutsunea hautematen.*

8 milioi euroren truke esleitutako 2 espedientetan, kontratuaren xedearekin zerikusirik ez duten alderdiak balioetsi dira, hau da, lantaldea eta esperientzia (A.15.1 eranskineko A2 hutsunea).

#### ALEGAZIOAK

*Espedienteak banan-banan xehatuko ditugu:*

4.- Salgaien manipulazioa eta garraioa.

*Agirietan adierazitakoari jarraituz, kontratuaren xedearekin lotutako alderdi hauek baloratu dira: baliabide materialak, baliabide pertsonalak eta hobekuntzak. Beraz, ez da adierazitako hutsunea hautematen.*

6.- Garbiketa, I. eta II. loteak.

*Agirietan adierazitakoari jarraituz, kontratuaren xedearekin lotutako alderdi hauek baloratu dira: proposatutako garbiketa-plana (langileak, tresnak, makineria eta baliabide osagarriak, garbitzeko materialak eta produktuak, eta garbiketa-planaren betetze-maila), enpresaren ezaugarriak (egitura teknikoa, antolaketa-egitura, prestakuntza, instalazioak eta hobekuntza-planak), bermeak eta hobekuntzak, homologazioak edota ziurtagiriak, eta segurtasun-plana. Beraz, ez da adierazitako hutsunea hautematen.*

1,7 milioi euroren truke esleitutako 2 espedientetan, nahitaez bete beharreko betekizunak balioesten dituzte agiriek, hala nola segurtasun- eta osasun-plana, kalitate-plana, stock-proposamena edo Bilbon lokala izateko beharra (A.15.1 eranskineko A7 hutsunea).

#### ALEGAZIOAK

*Espedienteak banan-banan xehatuko ditugu:*

1.- Uniformeen hornidura.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

*Lehiaketaren agirietan, balorazio-irizpide hauek ezartzen dira: produktua lehiaketaren oinarrietara egokitzen den, teknikoki; berme-baldintzak, eskainitako hobekuntzak, stock-proposamena, neurriak hartzea eta entrega-baldintzak.*

*Stock-proposamenari dagokionez, nahikoa stock izatea eskatzen zen, eta lehiatzen zen enpresa bakoitzak stockeko jantzien ehunekoaren proposamen zehatza egin behar zuen. Ez da stocka dagoen ala ez baloratu, stockaren osaera baizik (jantzien motak eta kopurua).*

*Lokalari dagokionez, agiriak adierazten zuten lokal bat behar zela gutxienez ere. Eskaintza baloratzean, lokala non zegoen eta jantziak emateko eta ordezkatzeko sistemarekiko egokia zen hartu zen kontuan.*

*Ez da adierazitako hutsunea hautematen.*

### *3.- Salmenta-makinen hornidura.*

*Lehiaketaren agirietan, balorazio-irizpide hauek ezartzen dira: eskaintza teknikoa (antzeko proiektuetan egindako lanaren erreferentziak eta esperientzia; laneko segurtasuna eta osasuna; kalitate-plana; kalitatea kontrolatzeko plana; kalitatea bermatzeko plana; proba-plana; mantentze-plana; fidagarritasun-, prestasun- eta mantengarritasun-plana; eta prestakuntza-plana), bermeak eta hobekuntzak (kosturik gabeko ekarpen gehigarriak), eta entrega-epeak.*

*Kalitate-planari eta segurtasun- eta osasun-planari dagokienez, ez da baloratu plan horiek dauden ala ez, hain zuzen, nahitaezkoak baitira; baizik eta, ea planak funtsik duten, ET-FV SAREN planekin bat datozen eta erakunde espezializatuek ziurtatu dituzten.*

*Ez da adierazitako hutsunea hautematen.*

10,5 milioi euroren truke esleitutako 5 espedientetan, txosten teknikoan ez ziren argudiatzen irizpide bakoitzari esleitutako puntuazioak (A.15.1 eranskinaren B1 hutsunea).

### *ALEGAZIOAK*

*Aipatutako espedienteen esleipen-txostenek prozedura berari jarraitzen diote eskaintzak baloratzerakoan: eskaintzak aurkezteko prozesua laburtu eta jasotako eskaintzak katalogatu ondoren, eskaintza bakoitza aztertzen du, Baldintza Orokorren Agirietan aurreikusitako balorazio-irizpideen arabera, eta alderdi positiboak eta alderdi negatiboak nabarmentzen ditu, ET-FV SAK egindako Agiri Teknikoarekiko.*

*Alderdi positibo eta alderdi negatibo horiek aintzat hartuta, balorazio orokorra egiten da, Baldintza Teknikoen Agiriko irizpideen arabera, eta laburpen-taula bat egiten da.*

TETRA irrati-komunikazioen sistema emateko, instalatzeko eta martxan jartzeko kontratuan (850.139 euroren truke esleitua), txosten teknikoan esleipen-irizpideen haztapena eta agirietan aurreikusitakoa desberdinak ziren (A.15.1 eranskinen B2 hutsunea).

### *ALEGAZIOAK*



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

*Baldintza Orokorren Agiriek dokumentu hauek eskatzen dizkiete lehiatzen diren enpresei: eskaintza teknikoa; metodologia eta epeak, Baldintza Teknikoen Agirian zehaztutako terminoetan; bermeak eta hobekuntzak; kalitatea bermatzeko metodologia; kalitate-ziurtagiriak; eta Baldintza Teknikoen Agiriak eskatutako beste edozein dokumentu.*

*Bestalde, lehiaketaren Baldintza Teknikoen Agiriek balorazio-irizpide hauek aurreikusten dituzte: eskaintza teknikoa (eskainitako materialaren zerrenda, beste proiektu batzuetan aplikatu izanaren erreferentziak, ekipamendu bakoitzaren deskribapen teknikoa, sistema osoaren deskribapen teknikoa/funtzionala, elementuen planoak eta aurretiko eskemak), lanak planifikatzeko hasierako proposamena, bermeak eta hobekuntzak. Eta orobat, espezifikazio tekniko orokor hauek ezartzen dituzte, besteak beste: ingurumen-betekizunak, betekizun funtzionalak, Tetraren betekizun espezifikoak, betekizun mekanikoak eta elektrikoak, softwarea eta komunikazioak, probak, segurtasun-betekizunak eta mantentze-betekizunak.*

*Eskaintzen balorazio-txosten teknikoak atal hauek ditu: konponbidearen deskribapen teknikoa (orokorra eta sistemaren elementu erabakigarriena), ezarpen-eta migrazio-plana (lan-programa, prestakuntza, dokumentazioa eta epeak), kudeaketa- eta mantentze-plana (mantentze-plana, kalitatea kudeatzeko sistema, sistemaren erabilgarritasuna, monitorizazio- eta diagnostiko-softwarea, RAMS).*

*Baloratutako elementu guztiak Baldintza Teknikoen Agirian aurreikusitako espezifikazio teknikoetan zeuden, eta lehiakide guztiek horri buruzko eskaintza egin behar zuten; hortaz, Eskaintza Teknikoaren barruan elementu horiek baloratzea bat dator lehiaketa arautzen duen dokumentazioarekin.*

6,7 milioi euroan esleitutako 5 kontratutan, esleipendunek jarritako fidantza txikiagoa izan da administrazio-klausulen agirietan eskatutakoa baino (A.15.1 eranskineko C1 hutsunea).

#### ALEGAZIOAK

*Espedienteak banan-banan xehatuko ditugu:*

##### *1.- Uniformeen hornidura.*

*Hainbat urtetarako kontratua da, 4 urteko iraunaldikoa. Jantzi bakoitzaren prezioa adierazten denez, hau da, unitateko prezioa, ez da guztizko zenbatekoa jakingo, harik eta kontratua osorik burutu arte. Hori dela eta, lizitazioaren agirien hasierako aurrekontua eta kontratu-zenbatekoa kontratu-aldian ustez egongo diren beharren arabera kalkulatu dira.*

*Kasu horietan, fidantza lehen urteko ustezko fakturazio-aurrekontuaren arabera kalkulatu da.*

##### *2.- Babesa eta zaintza Gasteizen.*

*Hainbat urtetarako kontratua da, 3 urteko iraunaldikoa. Zerbitzu-orduaren prezioa adierazten denez, ez da guztizko zenbatekoa jakingo, harik eta kontratua osorik burutu arte. Hori dela eta, lizitazioaren agirien hasierako aurrekontua eta*



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

*kontratu-zenbatekoa kontratu-aldian ustez egongo diren beharren arabera kalkulatu dira.*

*Kasu horietan, fidantza lehen urteko ustezko fakturazio-aurrekontuaren arabera kalkulatu da.*

*4.- Salgaien manipulazioa eta garraioa.*

*Hainbat urtetarako kontratua da, 4 urteko iraunaldikoa. Garraiatutako tonaren prezioa adierazten denez, ez da guztizko zenbatekoa jakingo, harik eta kontratua osorik burutu arte. Hori dela eta, lizitazioaren agirien hasierako aurrekontua eta kontratu-zenbatekoa kontratu-aldian ustez egongo diren beharren arabera kalkulatu dira.*

*Kasu horietan, fidantza lehen urteko ustezko fakturazio-aurrekontuaren arabera kalkulatu da.*

*5.- Zaintza, I. eta II. loteak.*

*Hainbat urtetarako kontratua da, 4 urteko iraunaldikoa. Zerbitzu-orduaren prezioa adierazten denez, ez da guztizko zenbatekoa jakingo, harik eta kontratua osorik burutu arte. Hori dela eta, lizitazioaren agirien hasierako aurrekontua eta kontratu-zenbatekoa kontratu-aldian ustez egongo diren beharren arabera kalkulatu dira.*

*Kasu horietan, fidantza lehen urteko ustezko fakturazio-aurrekontuaren arabera kalkulatu da.*

*7.- Tetraren hornidura.*

*Enpresa esleipendunarekin sinatutako kontratuaren guztizko aurrekontua 850.138,71 eurokoa da, eta eskatutako eta jarritako fidantza 42.506 eurokoa da – alegia, kontrata-aurrekontuaren % 5–, lehiaketaren Baldintza Orokorren Agirietan ezarritakoaren arabera.*

### **III.3 BESTE ALDERDI BATZUK**

#### **III.3.1 BERANKORTASUNA MERKATARITZA ERAGIKETETAN**

Ordaintzeko legezko gehieneko epea –erakunde eta sozietate publikoek 2010eko uztailaren 7tik aurrera egindako kontratuei aplika dakiekeena– ezarrita dago, aldi baterako, merkataritzako eragiketetan berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldatzen duen uztailaren 5eko 5/2010 Legearen hirugarren artikulua hiru paragrafoan eta Bigarren Xedapen Iragankorrean. Epe horiek 55 egunekoak dira administrazioentzat eta 75 egunekoak SPKL Legean herri-administrazioentzat hartzen ez diren erakunde eta sozietate publikoentzat.

Horrez gain, 2011ko apirilaren 12ko Jaurlaritzaren Kontseiluaren Akordio bidez ezarri zen EAEko Administrazio Orokorren mendeko sektore publikoarentzat ezinbestekoa dela sektore horrek 2012an egitea bere ordainketak, 30 eguneko gehieneko epean.



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

15/2010 Legean jasota dagoen Hirugarren Xedapen Gehigarrian "Informatzeko betebeharra" ezartzen da sozietate publikoek esanbidez argitaratu behar dituztela beren hornitzaileei ordaintzeko epeei buruzko informazioak beren autonomia-erkidegoetako memorian.

ET-FV SA Ekitaldia ixtean ordaintzeko dagoen saldoa –ezarritako epe legala gainditzen duena– 3 milioi euro da, eta ordaintzeko batez beste gainditutako epea 40 egunekoa da.

#### *ALEGAZIOAK*

*Informazio-betebeharrari dagokionez, ET-FV SAK aurrekontu-izendapenen memorian argitaratzen du hornitzaileei ordaintzeko epeari buruzko informazioa (21.4. atala: Merkataritza-eragiketetan hornitzaileei ordaintzeko atzerapenei buruzko informazioa).*

*Ekitaldia ixtean ordaintzeko dagoen 3 milioi euroko saldoari –merkataritza-eragiketetarako ezarritako epe legala gainditzen duenari– dagokionez, azpimarratu behar dugu 0,5 milioi euro baino ez dagozkiela hirugarrenetikiko merkataritza-eragiketei, eta gainerako 2,5 milioiak ETS erakunde publikoarekin dagoen saldoari dagozkiola (ETS eta ET-FV sail berari atxikita daude).*





Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## ALEGAZIOAK-STC-ELS, S.A.

### II. IRITZIA

#### II.1 LEGEZKOTASUNA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

##### II.1.3 ONDASUNEN ETA ZERBITZUEN KONTRATAZIOA

##### STC-ELS, S.A.

4.- Laguntza-zerbitzuen 6 kontratu, 521.938 euroan esleituak, zenbait programatako laguntzako eta aholkularitza teknikoko lanetarakoak, eta garapen eta ikerketa teknologikoko proiektuen ebaluazio-zerbitzuen 5 kontratu, 389.500 euroan esleituak, NO SARA kontratu gisa izapidetu ziren. Hala ere, kontratuen xedea kontuan hartuta, SARA kontratu gisa izapidetu beharko ziren. Hortaz, EBAOren publizitate-baldintza urratu da, eta konkurrentzia mugatu da (A.15.1 eranskineko A6 hutsunea).

##### *ALEGAZIOAK*

##### 2012ko Innova Ibilbideak programarako laguntza-lanak

##### A7 Baldintza-orrietan eskatutako kaudimen-baldintzak lehia mugatzen du.

*Baldintza hauek eskatzen dira: gutxieneko negozio-bolumena izatea, Herri Administrazioetan antzeko proiektuetan parte hartu izana, erdi- eta goi-mailako tituludunen gutxieneko kopuru bat izatea, eta I+Gn gutxieneko inbertsioa egitea.*

*Irizpide horiei esker, zerbitzua behar bezala egingo dela bermatu nahi da, eta horretarako, hau ebaluatzen zaio lizitatzailerari:*

- *Erakundeak tamaina egokia izatea, eta bertan, prestakuntza-maila handiko pertsonen lan egitea. Irizpidea: negozio-bolumen orokor jakin batetik gora izatea; eta erdi- eta goi-mailako tituludunen gutxieneko kopuru bat izatea.*
- *Lan-taldea osatuko duten kideek baldintza horiek betetzea eta prestakuntza-maila egokia izatea. Irizpidea: erdi- eta goi-mailako tituludunen gutxieneko kopuru bat izatea*
- *Lizitazioaren xede den gaiari buruzko ezagutza espezifikoak izatea. Irizpidea: Herri Administrazioetan antzeko proiektuetan parte hartu izana.*
- *Laguntza-programen xede diren zerbitzu aurreratuak garatzeko gaitasuna (kudeatu behar diren programak SPRIko BERRIKUNTZA EZ-TEKNOLOGIKOKOAK dira). Irizpidea: I+Gn gutxieneko inbertsioa egitea.*

##### 2013ko Innova Ibilbideak programarako laguntza-lanak

##### A7 Baldintza-orrietan eskatutako kaudimen-baldintzak lehia mugatzen du.

*Baldintza hauek eskatzen dira: gutxieneko negozio-bolumena izatea, Herri Administrazioetan antzeko proiektuetan parte hartu izana, erdi- eta goi-mailako tituludunen gutxieneko kopuru bat izatea, eta I+Gn gutxieneko inbertsioa egitea.*



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

*Irizpide horiei esker, zerbitzua behar bezala egingo dela bermatu nahi da, eta horretarako, hau ebaluatzen zaio lizitatzailerari:*

- *Erakundeak tamaina egokia izatea, eta bertan, prestakuntza-maila handiko pertsonen lan egitea. Irizpidea: negozio-bolumen orokor jakin batetik gora izatea; eta erdi- eta goi-mailako tituludunen gutxieneko kopuru bat izatea.*
- *Lan-taldea osatuko duten kideek baldintza horiek betetzea eta prestakuntza-maila egokia izatea. Irizpidea: erdi- eta goi-mailako tituludunen gutxieneko kopuru bat izatea*
- *Lizitazioaren xede den gaiari buruzko ezagutza espezifikoak izatea. Irizpidea: Herri Administrazioetan antzeko proiektuetan parte hartu izana.*
- *Laguntza-programen xede diren zerbitzu aurreratuak garatzeko gaitasuna (kudeatu behar diren programak SPRIko BERRIKUNTZA EZ-TEKNOLOGIKOKOAK dira). Irizpidea: I+Gn gutxieneko inbertsioa egitea.*

#### 2012ko Innova Aldatu programarako laguntza-lanak

##### A7 Baldintza-orrietan eskatutako kaudimen-baldintzak lehia mugatzen du.

*Baldintza hauek eskatzen dira: gutxieneko negozio-bolumena izatea, Herri Administrazioetan antzeko proiektuetan parte hartu izana, erdi- eta goi-mailako tituludunen gutxieneko kopuru bat izatea, eta I+Gn gutxieneko inbertsioa egitea.*

*Irizpide horiei esker, zerbitzua behar bezala egingo dela bermatu nahi da, eta horretarako, hau ebaluatzen zaio lizitatzailerari:*

- *Erakundeak tamaina egokia izatea, eta bertan, prestakuntza-maila handiko pertsonen lan egitea. Irizpidea: negozio-bolumen orokor jakin batetik gora izatea; eta erdi- eta goi-mailako tituludunen gutxieneko kopuru bat izatea.*
- *Lan-taldea osatuko duten kideek baldintza horiek betetzea eta prestakuntza-maila egokia izatea. Irizpidea: erdi- eta goi-mailako tituludunen gutxieneko kopuru bat izatea*
- *Lizitazioaren xede den gaiari buruzko ezagutza espezifikoak izatea. Irizpidea: Herri Administrazioetan antzeko proiektuetan parte hartu izana.*
- *Laguntza-programen xede diren zerbitzu aurreratuak garatzeko gaitasuna (kudeatu behar diren programak SPRIko BERRIKUNTZA EZ-TEKNOLOGIKOKOAK dira). Irizpidea: I+Gn gutxieneko inbertsioa egitea.*

#### 2013ko Innova Aldatu programarako laguntza-lanak

##### A7 Baldintza-orrietan eskatutako kaudimen-baldintzak lehia mugatzen du.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

*Baldintza hauek eskatzen dira: gutxieneko negozio-bolumena izatea, Herri Administrazioetan antzeko proiektuetan parte hartu izana, erdi- eta goi-mailako tituludunen gutxieneko kopuru bat izatea, eta I+Gn gutxieneko inbertsioa egitea.*

*Irizpide horiei esker, zerbitzua behar bezala egingo dela bermatu nahi da, eta horretarako, hau ebaluatzen zaio lizitatzailari:*

- *Erakundeak tamaina egokia izatea, eta bertan, prestakuntza-maila handiko pertsonen lan egitea. Irizpidea: negozio-bolumen orokor jakin batetik gora izatea; eta erdi- eta goi-mailako tituludunen gutxieneko kopuru bat izatea.*
- *Lan-taldea osatuko duten kideek baldintza horiek betetzea eta prestakuntza-maila egokia izatea. Irizpidea: erdi- eta goi-mailako tituludunen gutxieneko kopuru bat izatea*
- *Lizitazioaren xede den gaiari buruzko ezagutza espezifikoak izatea. Irizpidea: Herri Administrazioetan antzeko proiektuetan parte hartu izana.*
- *Laguntza-programen xede diren zerbitzu aurreratuak garatzeko gaitasuna (kudeatu behar diren programak SPRIko BERRIKUNTZA EZ-TEKNOLOGIKOKOAK dira). Irizpidea: I+Gn gutxieneko inbertsioa egitea.*

#### 2012ko LEHIATU programarako laguntza-lanak

##### A7 Baldintza-orrietan eskatutako kaudimen-baldintzak lehia mugatzen du.

*Baldintza hauek eskatzen dira: gutxieneko negozio-bolumena izatea, Herri Administrazioetan antzeko proiektuetan parte hartu izana, erdi- eta goi-mailako tituludunen gutxieneko kopuru bat izatea, eta I+Gn gutxieneko inbertsioa egitea.*

*Irizpide horiei esker, zerbitzua behar bezala egingo dela bermatu nahi da, eta horretarako, hau ebaluatzen zaio lizitatzailari:*

- *Erakundeak tamaina egokia izatea, eta bertan, prestakuntza-maila handiko pertsonen lan egitea. Irizpidea: negozio-bolumen orokor jakin batetik gora izatea; eta erdi- eta goi-mailako tituludunen gutxieneko kopuru bat izatea.*
- *Lan-taldea osatuko duten kideek baldintza horiek betetzea eta prestakuntza-maila egokia izatea. Irizpidea: erdi- eta goi-mailako tituludunen gutxieneko kopuru bat izatea*
- *Lizitazioaren xede den gaiari buruzko ezagutza espezifikoak izatea. Irizpidea: Herri Administrazioetan antzeko proiektuetan parte hartu izana.*
- *Laguntza-programen xede diren zerbitzu aurreratuak garatzeko gaitasuna (kudeatu behar diren programak SPRIko BERRIKUNTZA EZ-TEKNOLOGIKOKOAK dira). Irizpidea: I+Gn gutxieneko inbertsioa egitea.*

#### 2013ko LEHIATU programarako laguntza-lanak



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

A7 Baldintza-orrietan eskatutako kaudimen-baldintzak lehia mugatzen du.

*Baldintza hauek eskatzen dira: gutxieneko negozio-bolumena izatea, Herri Administrazioetan antzeko proiektuetan parte hartu izana, erdi- eta goi-mailako tituludunen gutxieneko kopuru bat izatea, eta I+Gn gutxieneko inbertsioa egitea.*

*Irizpide horiei esker, zerbitzua behar bezala egingo dela bermatu nahi da, eta horretarako, hau ebaluatzen zaio lizitatzailerari:*

- *Erakundeak tamaina egokia izatea, eta bertan, prestakuntza-maila handiko pertsonak lan egitea. Irizpidea: negozio-bolumen orokor jakin batetik gora izatea; eta erdi- eta goi-mailako tituludunen gutxieneko kopuru bat izatea.*
- *Lan-taldea osatuko duten kideek baldintza horiek betetzea eta prestakuntza-maila egokia izatea. Irizpidea: erdi- eta goi-mailako tituludunen gutxieneko kopuru bat izatea*
- *Lizitazioaren xede den gaiari buruzko ezagutza espezifikoak izatea. Irizpidea: Herri Administrazioetan antzeko proiektuetan parte hartu izana.*
- *Laguntza-programen xede diren zerbitzu aurreratuak garatzeko gaitasuna (kudeatu behar diren programak SPRIko BERRIKUNTZA EZ-TEKNOLOGIKOKOAK dira). Irizpidea: I+Gn gutxieneko inbertsioa egitea.*

5.- Ikusi dugu 316.210 euroko gastuak daudela, eta kontratu txiki gisa izapidetu direla, baina kontratazioko barne-jarraibideen arabera zegozkien prozeduren bidez izapidetu behar ziren (ikus A.16.2 eranskina).

ALEGAZIOAK

Bidaien kudeaketa

*Bidaiak izapidetzeko kudeaketa-akordioa kontratu txikitzat hartzen da, kontuan izanda bidaiak kudeatzeko hirugarren horren aurrean izapidetzen diren zenbatekoak ez direla hirugarren horri zuzeneko prestazioak gauzatzeagatik ematen, baizik eta zerbitzu horren azken onuradunari, hots, konpainia aeronautikoei, trenbide-konpainiei, hotelei eta abarri egindako kontratazioen zenbatekoa emateko ardura duen agente kolaboratzaile gisa ematen direla.*

*Zerbitzu horien kudeaketak eragiten duen benetako kostua, zerbitzuaren azken hartzaileei ordaindu beharreko zenbatekoa deskontatu ondoren 5.490,29 euro denez, ez da lizitazio-prozesurik egin behar.*



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

NOMBRE CLIENTE	PRODUCTO	DESCRIPCIÓN PRODUCTO	TOTAL
Sociedad para la transformación	AV	BSP SERVICIOS COMPLEMENTARIOS.....	190,00
		E-TICKET INTERNACIONAL .....	180.631,89
		E-TICKET NACIONAL .....	15.262,11
		SUPLEMENTO AVIACIÓN .....	601,00
		SUPLEMENTO AVIACIÓN INTERNACIONAL.....	50,00
		SUPLIDO AVIACIÓN NACIONAL .....	319,40
<b>TOTAL AV</b>			<b>197.054,40</b>
	DI	GESTIÓN SERVICIOS COMPLEMENTARIOS .....	12,44
		SERVICE FEE.....	3.932,64
		SERVICE FEE COCHES ALQUILER .....	6,31
		SERVICE FEE HOTELES.....	12,00
		SERVICE FEE TREN.....	183,34
		SERVICE FEE VISITAS.....	6,00
		VISADO .....	493,56
		VISITA BODEBA LABASTIDA.....	844,00
		<b>TOTAL DI</b>	
<b>TOTAL GENERAL</b>		<b>202.544,69</b>	

IT Txartelaren proben tutorizazioa; Kudeaketa-aplikazioak araudi berrira egokitzea; Tolosako Gipuzkoa Encounterren antolaketa

Ez da egia “IT Txartelaren proben tutorizazioa”, “Kudeaketa-aplikazioak araudi berrira egokitzea” eta “Tolosako Gipuzkoa Encounterren antolaketa” zerbitzuak, haiek guztiak 25.000 euroko zenbatekoak, SPRIko kontratazioko barne-jarraibideetan ezarritakoa bete gabe izapidetu direnik.

Jakina denez, SPKLTBan aurreikusitako sailkapenaren arabera, SPRI herri-administrazioentzat hartzen ez den botere esleiztailea da. Hori esanda, gogorarazi behar dugu SPRIko kontratazioko barne-jarraibideek 1. mailako kontratazioak (50.000 euroko edo beheragoko balioa duten kontratuak, kontratu mota edozein izanik ere) arautzen dituztela bereziki, eta legera erabat egokitzen direla; izan ere, kontuan hartzen dituzte publizitatearen eta lehiaren printzipioak.

1. mailako kontratuei dagokienez, kontratazioko barne jarraibideek eskaintza bakar bat eskatzeko aukera aurreikusten dute. Sistema hau SPKLTBaren 138. artikuluan herri-administrazioentzat arautzen denaren berdin-berdina da, salbuespen bakarra izanik zerbitzuen kontratuentzat zenbatekoa igotzen dela.

Azen batean, SPRIko kontratazioko barne-jarraibideetan aurreikusitako prozedurak bermatzen du SPKLTBaren 191. artikuluan eskatzen diren printzipioak beteko direla 50.000 eurotik beherako kontratuetan, eta ezartzen du eskaintza bakarra egin daitekeela Herri Kontuen Euskal Epaitegiak aipatutako eta A.16.2 eranskinean adierazitako kontratuetarako.

## II.1.4 BABESLETZA KONTRATUAK



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

8.- STC-ELS SA sozietateak bost babesletza-kontratu egin zituen, 750.000 euroan, eta zuzenean esleitu zituen, publizitaterik eta lehiarik gabe (A.17 eranskineko A hutsunea).

#### ALEGAZIOAK

##### Fun & serious Game Festival eta Euskal Encounter

“Fun&Serious Game Festival” eta “Euskal Encounter” ekitaldien babesletza-kontratuak egin aurretik, SPRIk babesletza horretan zuen interesa frogatzeko memoria bat egin behar izan zen. Memoria hori “Ekitaldiaren berezitasunaren txostena, SPRIri egindako kontraprestazioak eta hornitzaileen justifikazioa” txostenean dago, eta txosten hori Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren eskura dago. Txosten horretan, behar bezala justifikatzen da babesletzaren zenbatekoa eta SPRIk publizitatearen bidez lortzen duen itzulkina baliokideak direla. Halaber, txosten horretan azaltzen da zergatik negoziatu den babesletza hori enpresa batekin soilik, publizitatearen eta lehiaren printzipioei kalte egin gabe.

Kontsultarako organoek onartzen dutenaren arabera, publizitate-prozedura negoziatua erabil daiteke kontratu horietan; izan ere, babestutako erakundeekin soilik egin daitezke kontratu horiek. Ildo horretan, Aragoiko 1/2009 JCCaren txostena aipa daiteke:

"Publizitate-babesletzak aukera ematen die herri-administrazioei kirol-jarduera finantzatzeko eta inbertsio hori publizitate gisa errentagarri egiteko. Bi alderdien prestazioen arteko baliokidetasun hori argi eta garbi jaso behar da agirietan (administrazio-klausula partikularren agirietan edota baldintza teknikoan agirietan), baita kontratu-dokumentuan bertan ere. Horren helburua da kontratu baten figuraren bidez diru-laguntza bat ezkuta dadin eragozte; izan ere, diru-laguntza baten kasuan, onuradunak ez du zuzeneko prestaziorik egin beharrik. Babesletza-kontratuak kontratu pribatuak dira, bai eta, kasu honetan bezala, herri-administrazio batek egiten baditu ere.

Babesletza-kontratuen erregimen juridikoa Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 20. artikuluan txertatu da. Izan ere, artikulua horren bigarren idatz-zatian, hau esaten du: “prestakuntzari eta esleipenari dagokienez, arau espezifikorik ezean, Lege honek eta haren garapen-xedapenek arautuko dituzte kontratu pribatuak. Gainera, administrazio-zuzenbideko gainerako arauak edo, dagokionean, zuzenbide pribatukoak aplikatuko dira, kontratuaren xedea edo erakunde kontratatzailea zein den. Ondorioei eta iraungipenari dagokienez, zuzenbide pribatuak arautuko ditu kontratu horiek.

Aragoiko Autonomia Erkidegoko Administrazio Kontratazioko Kontsulta Batzordearen 28/2008 Txostenean, abenduaren 10ekoan, sobera argudiatzen da kontratu pribatuak esleitzean publizitaterik gabeko prozedura negoziatura jotzeko aukera dagoela. Hortaz, txosten honek hau soilik egiaztatuko du: ea kirol-ekitaldietan babesletza-kontratu pribatuetan aplika daitezkeen administrazio-klausula partikularren agiriak egokiak diren ala ez, Sektore Publikoko Kontratuen 30/2007



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

*Legearen, urriaren 30ekoaren, aginduen arabera, bai eta erreferentziazko txostenean adierazitako gomendio, iradokizun eta oharren arabera ere".*

### **III. BARNE-KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA-PROZEDUREI BURUZKO GOGOETAK**

Paragrafo honetan, ekonomia- eta finantza-arloko jarduera arautzen duten printzipioak betetzeari modu garrantzitsuan eragiten ez dieten hutsuneak eta kudeaketa hobetzeko agerian jartzen diren prozedura-alderdiak aipatuko dira.

#### **III.1 LANGILEAK**

STC-ELS SA: 2012. ekitaldian, 11 langilek ordainsari aldakorrak jaso zituzten, Enpresako Zuzendaritzak une bakoitzean ezarritako helburuen arabera kalkulatuta zeudenak, alegia; horrenbestez, sozietatearen lan-baldintzak arautzen dituen hitzarmena bete egin da, hor jasota baitago sozietateko zuzendariei ordainsari aldakorrak emango zaizkiela, ez, ordea, lan-arloko langileei.

##### *ALEGAZIOAK*

*Ordainsarien mekanismoa ez da hitzarmen arautzaileetan bildu behar, kontratuak langileekin negoziatzeko garaian Zuzendaritzak duen ahalmena baita.*

#### **III.2 ONDASUNEN ETA ZERBITZUEN KONTRATAZIOA**

##### **III.2.1 KONTRATAZIO ESPEDIENTEAK**

Ekitaldi honetan esleitutako kontratazio-espeditenteak aztertu eta aurreko ekitaldietan esleitutako espeditenteen jarraipena egin ondoren (espeditente horiek A.15 eranskinen aztertu dira), honako alderdi hauek nabarmenduko ditugu:

##### **Kontrataziorako Barne Jarraibideak**

##### **STC-ELS SA**

Sozietatearen kontratazioko barne-jarraibideek eskaintza bakarra eskatzea arautzen dute, 50.000 eurotik beherako kontratuetan; horrenbestez, ez dira bermatzen erregulazio harmonizatuaren mende ez dauden kontratuak arautzen dituen SPKLTBaren 191.b) artikuluan eskatzen diren printzipioak Ikusi dugu 405.410 euroko gastuak daudela, eta kontratu txiki gisa izapidetu direla, baina dagokion prozedura bidez izapidetu behar ziren. (ikus A.16.2 eranskina).

##### *ALEGAZIOAK*

*Ez da egia SPRIren kontratazioko barne jarraibideetan aurreikusitako prozedurek ez dutela bermatzen SPKLTBaren 191. artikuluan eskatzen diren printzipioak beteko direla 50.000 eurotik beherako kontratuetan. Gertatzen dena da Herri Kontuen Euskal Epaitegiak SPRI herri-administrazioekin parekatu nahi duela, baina SPRI sektore publikoko erakunde bat da, herri-administrazioaren izaera ez duena.*



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

*SPKLTBan hainbat eskakizun-maila ezartzen dira bere aplikazio-eremu subjektiboan. Zehazki, sektore publikoko erakundeen barruan, SPKLTBan subjektuen hiru kategoria bereizten dira, eta subjektu horiek Legearen aginduekiko mendekotasun-maila desberdina dute: (i) herri-administrazioak; (ii) herri-administrazioak ez diren eta botere esleitzzaileak diren sektore publikoko erakundeak; eta, azkenik, (iii) herri-administrazioak ez diren eta botere esleitzzaileak ez diren sektore publikoko erakundeak.*

*SPKLTBan aurreikusitako sailkapenaren arabera, SPRI herri-administrazioetat hartzen ez den botere esleitzzailea da.*

*Herri-administrazioetat hartzen ez diren botere esleitzzaileek erregulazio harmonizatuaren mende ez dauden kontratuak aplikatzeko orduan aplika daitekeen prozedura SPKLTBaren 191. artikuluan arautzen da, eta honela dio:*

*"Arau harmonizatupean ez dauden kontratuak esleitzean, honako xedapen hauek aplikatuko dira:*

*a. Esleipena, publizitatea, lehia, gardentasun, isilpekotasun, berdintasun eta diskriminaziorik ezaren printzipioen pean egingo da.*

*b. Atal honetan aipatzen diren erakundeetako organo eskudunek nahitaez bete beharreko jarraibideak onartuko dituzte beren etxe barrurako, eta, bertan, kontratazio-prozedurak arautuko dira, aurreko idatz-zatian aipatzen diren printzipioen eraginkortasuna bermatuz eta kontratua ekonomiaren aldetik abantailatsuena den eskaintza aurkezten duenari esleituz. Arautzen dituzten kontratuen esleipen-prozeduretan parte hartzeko interesa duten guztien eskura jarri behar dira jarraibide hauek, eta entitatearen kontratatzaile-profilean argitaratu behar dira.*

*Estatuaren sektore publikoaren esparruan, Estatuko abokatutzaren alde aurreko txostena beharko da jarraibideak onartzeko.*

*c. 50.000 eurotik gorako zenbatekoa duten kontratuen lizitazioari buruzko informazioa entitatearen kontratatzaile-profilean argitaratuz, publizitate-printzipioaren betekizunei erantzun zaiela joko da, kontrataziorako barne-jarraibideek hedapenerako beste bide batzuk, ordezkioak edo gehigarriak, ezartzearen kalterik gabe".*

*Agindu horren arabera, SPRIk erregulazio harmonizatutik jare egiten dituen kontratuek honako araubide honen mende daude:*

*(i) SPKLTBan ezarritako lizitazio-prozedurak ez zaizkie aginduz aplikatu behar herri-administrazioei; izan ere, legegilearen asmoa hori bazen espresuki jasoko zen arauan.*

*(ii) Esleipen-prozedurak ezartzeko jartzen den muga bakarra publizitatearen, lehiaren, gardentasunaren, isilpekotasunaren, berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioak kontuan hartzea da.*





*(iii) Ulertzen da publizitatea betetzen dela iragarkia profilean txertatzen bada, baina publizitatea 50.000 eurotik gorako kontratuei soilik eskatzen zaie; beraz, kontrako zentzuan, zenbateko txikiagoko kontratuentzat ez da beharrezkoa izango.*

*Horrenbestez, SPRIk askatasuna dauka erregulazio harmonizatuaren mende ez dauden kontratuak esleitzeko prozedurak diseinatzeko garaian.*

*publizitatearen eta lehiaren printzipioei dagokienez, SPKLTBak ez du printzipio horien irismenari buruzko zehaztasun handiagorik ezartzen, baina Kontratazioko Kontsulta Batzordeek horren inguruko doktrina finkatu dute; izan ere, publizitatearen eta lehiaren printzipioak eskatzearen inguruan honako funtsezko irizpide hauek ezarri dituzte:*

*(i) Kontratazioan publizitatearen eta lehiaren printzipioak kontuan hartzeko betebeharrak ezin du ekarri SPKLTBan ezarritako kontratazio-prozedurak, hala badagokio, aplikatu behar izatea.*

*(ii) publizitatearen eta lehiaren printzipioak modu malguan eta eragiketa bakoitzaren izaera berezira egokitutako arrazoizko moduan hartu behar dira kontuan. Azken batean, helburua zera da, esleipen arbitrarioak saihestea eraginkortasunaren irizpide objektiboen kontrakoak izateagatik.*

*(iii) Ez dago arau edo irizpide orokorrik printzipio horien aplikazioa kasu bakoitzean nola zehaztu behar den jakiteko. Sozietateari berari dagokio gai hori lantzea kasu bakoitzaren inguruabar berezien arabera.*

*Era berean, Aragoiko Administrazio Kontratazioaren Kontsulta Batzordeak martxoaren 3ko 1/2008 Interpretazio Zirkularrean adierazi zuen erakunde horiek bete behar dituzten "printzipioen" aplikazioa ezin dela parekatu SPKLTBaren "aginduak" aplikatzearekin. Horrenbestez, onartzen diren kontratazioko barne jarraibideek egokitzat hartzen duten araubidea bildu ahal izango dute esleipen-prozeduren alorrean, betiere SPKLTBaren 191. artikuluan aipatzen diren printzipioak beteko direla bermatzen bada.*

*Laburbilduz, erregulazio harmonizatuaren mende ez dauden kontratuei dagokienez, SPKLTBak herri-administrazioetat hartzen ez diren botere esleitzzaileen esku uzten du orokorrean aipatutako publizitatearen eta lehiaren helburu horiek lortzeko egokiak diren prozedurak eratzea. Eta horregatik, ez daude behartuta herri-administrazioetarako aurreikusitako prozedura berak aplikatzera.*

*Aurrekoa ezarrita, kontratazioko barne jarraibideetan aurreikusitako prozedurak, eta, bereziki 1. mailetakoa (50.000 euroko edo beheragoko balioa duten kontratuak, kontratu mota edozein izanik ere) labur aztertzea besterik ez dago legera erabat egokitzen direla ondorioztatzeko; izan ere, kontuan hartzen dituzte publizitatearen eta lehiaren printzipioak.*

*1. mailako kontratuei dagokienez, kontratazioko barne jarraibideek eskaintza bakar bat eskatzeko aukera aurreikusten dute. Arrazoa zera da, ohiko kontratazio-espeditente bat izapidetzeak SPRIri eta egon litezkeen lizitatzaileei eragingo lizkiekeen*



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

*gastuak kasu honetan ez lirartekeela konpentsatuko, kontratuaren prezioa huskeria delako.*

*Azken batean, kontratazioa arindu nahi da, baina horrek ez du ekarri behar, inondik inora, kontratazio publikoa arautzen duten printzipioen murrizketa.*

*Sistema hau SPKLTBaren 138. artikuluan herri-administrazioentzat arautzen denaren berdin-berdina da, salbuespen bakarra izanik zerbitzuen kontratuentzat zenbatekoa igotzen dela. Agindu hau kontratu txikiei buruzkoa da; 50.000 eurotik beherako zenbatekoa duten kontratuak hartzen dira halakotzat, obra-kontratuak direnean, edo 18.000 eurotik beherako zenbatekoa dutenak beste kontratu batzuk direnean. SPKLTBaren arabera, kontratu bat bere zenbatekoaren arabera kontratu txiki gisa sailka daitekeenean, izapidetze-prozedura sinplifikatu bat ezartzen da eta "zuzenean esleiri dakioke edozein enpresabururi".*

*Prozedura horren oinarria administrazio-jardunaren eraginkortasun- eta efizientzia-printzipioan dago; izan ere, ohiko esleipen-prozedurak dakartzan denbora- eta diru-gastu handiak ez dira justifikatzen kontratuaren zenbatekoa murrizta denean, kasu honetan gertatzen den bezala.*

*Beraz, kontratazioko barne jarraibideetan araututako prozedura, kontratu publikoen legeriara egokitzeaz gain, SPKLTBak herri-administrazioentzat aurreikusitakoaren antzekoa zen, eta ezin da ondorioztatu arau-haustea dagoela zerbitzuen eta horniduren kontratuetarako muga 18.000 eurotik 50.000 eurora igotzeagatik, SPKLTBaren 191. artikulua erabateko askatasuna ematen baitu muga horretaraino.*

*Azken batean, SPRIren kontratazioko barne jarraibideetan aurreikusitako prozedurak bermatzen du SPKLTBaren 191. artikuluan eskatzen diren printzipioak beteko direla 50.000 eurotik beherako kontratuetan.*

## STC-ELS SA

911.438 euroan esleitutako 11 kontratutan, prezioaren irizpidearen haztapena aldakorra izan zen, aurkeztutako eskaintzen arabera; alegia, agirietan emandako haztapena indargabetuta geratu zen (A.15.1 eranskineko A1 hutsunea). Gainera, kontratuaren xedearekin loturarik ez zuten alderdiak ere baloratu ziren –besteak beste, lantaldea eta esperientzia– (A.15.1 eranskineko A2 hutsunea), eta Baldintza Orokorren Agiriak esleipen-irizpide generikoak zituen –hala nola, proposatutako jarduera-programa eta lan-plana– (A.15.1 eranskineko A3 hutsunea). Parte-hartzea eskatzeko edota eskaintzak aurkezteko, agirietan ezarritako epeak ez du bermatzen publizitatearen printzipioa benetan betetzen denik, SPKLTBaren 191. artikuluan agindutakoaren arabera (A.15.1 eranskineko A4 hutsunea).

### ALEGAZIOAK

*Agiriak ezartzen dute balorazio-irizpideen haztapena bi hauen artean banatzen dela: "Balorazioa balio-irizpideari lotuta duten irizpideak" eta "Balorazioa formula ezagun baten bidez egiten duten irizpideak". Lehen irizpideak Eskaintza Teknikoa baloratzeko erabiltzen dira, eta bigarrenak, Eskaintza Ekonomikoa baloratzeko.*



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

*Eskaintza Ekonomikoa baloratzeko irizpideak finkoak dira eta berehala aplikatzen dira (kontratazio-mahaiko kideek ez dute irizpiderik eman behar).*

*Formula zorrotz aplikatuz gero, haztapena ez da indargabetzen. Eskaintzarik merkeenak irizpide horretako puntuaziorik handiena jasoko du, eta gainerako eskaintzen puntuazioak zehazteko, formula aplikatuko da, agirietan argitaratutakoari jarraituz.*

*Bestalde, ez da egia “proposatutako lan-plana” edo “proposatutako jarduera-programa” irizpide generikoak direnik. Eskaintza egiten duten enpresek aurkeztutako dokumentuetan, zehaztu eta xehatu egiten dira, eta beraz, zehaztasunez ebalua daitezke, eta ez generikoki.*

*Halaber, ez da egia kontratuaren xedearekin zerikusirik ez duten alderdiak ebaluatzen ari garenik. HKEEren arabera, “lantaldea” kontratuaren xedearekin lotuta ez dagoen alderdi bat da, eta hortaz, ez litzateke balorazio-irizpidetzat hartu beharko. Zerbitzuak emateko kontratuez ari garela eta zerbitzu horiek pertsonak eman behar dituztela kontuan hartuta, uste dugu irizpide horrek kontratuaren xedearekin zuzenean lotuta egon behar duela.*

*Errendimendu Handiko Fabrikaziorako Garapen eta Ikerketa Teknologikoko Proiektuen Ebaluazioa.*

*Material Berrien Garapen eta Ikerketa Teknologikoko Proiektuen Ebaluazioa.*

*Software Aurreratuaren Garapen eta Ikerketa Teknologikoko Proiektuen Ebaluazioa.*

